



Universidad Pública de Navarra  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

# **Ahokotasunaren lanketa bertsolaritzaren bidez: proposamen didaktiko bat bigarren hezkuntzarako**

**Ainara Iregi Aranburu**

Master Bukaerako Lana

Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan

Zuzendaria: Ekaitz Santazilia Salvador

2020-2021 ikasturtea

**Ikaslea**

Ainara Iregi Aranburu

**Izenburua**

Ahozketasunaren lanketa bertsolaritzaren bidez: proposamen didaktiko bat bigarren hezkuntzarako

**Masterra**

Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan

**Ikastegia**

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**Zuzendaria**

Ekaitz Santazilia Salvador

**Saila**

Giza eta Hezkuntza Zientzien Saila

**Ikasturtea**

2020/2021

## **LABURPENA**

Bertsolaritza bat-bateko ahozko jardun bezala ulertuz, lan honen helburua euskal literaturaren adar hau baliatzea da ikasleen ahozko komunikazio gaitasuna sustatzeko. Horretarako, bertsolaritzak ikasleen ahozkotasanari eskaini diezaiokeena azaldu da alor teorikoan, bai ikasgelaren baitan, baita eskolaz kanpo ere. Bestalde, alor praktikoan, bertsolaritzan oinarritutako unitate didaktiko bat proposatu eta praktikan jarri da 12-14 urteko ikasleekin, hauen gaitasun komunikatiboa garatzen laguntzea ardatz nagusitzat hartu duena.

*Hitz gakoak:* bertsolaritza, ahozko komunikazio gaitasuna, unitate didaktikoa

## **RESUMEN**

Entendiendo el bertsolarismo como una actividad oral de improvisación, el objetivo de este trabajo es fomentar la capacidad comunicativa oral de los alumnos a través de esta rama de la literatura vasca. Para ello, se ha explicado lo que el bertsolarismo puede ofrecer a la oralidad de los alumnos en el ámbito teórico, tanto dentro del aula como fuera de ella. Por otro lado, en el ámbito práctico, se ha propuesto y llevado a la práctica una unidad didáctica basada en el bertsolarismo con alumnos de 12-14 años, que tiene como eje central contribuir al desarrollo de la competencia comunicativa del alumnado.

*Palabras clave:* bertsolarismo, capacidad comunicativa oral, unidad didáctica

## **ABSTRACT**

Bertsolaritza is an improvised oral activity, and the aim of this work has been to encourage pupils' oral communication skills through this branch of Basque literature. To this end, we have discussed what bertsolaritza can offer to pupils' oral skills in the theoretical field, both inside and outside the classroom. On the other hand, in the practical field, a didactic unit based on bertsolarism has been proposed and put into practice with students aged 12-14 years old, the central axis of which has been to contribute to the development of pupils' communicative competence.

*Keywords:* bertsolaritza, oral communication skills, didactic unit

# AURKIBIDEA

|   |    |
|---|----|
| SARRERA   | 6  |
| 1. ARLO TEORIKOA                                      | 7  |
| 1.1. Hainbat datu soziolinguistiko                    | 7  |
| 1.1.1. Iruñerriko gazteen hizkuntza erabilera egoera  | 7  |
| 1.1.2. Nafarroako bertsolaritzaren egoera             | 8  |
| 1.2. Bertsolaritza eta ahozkotasuna                   | 10 |
| 1.3. Bertsolaritza eta aisialdia                      | 12 |
| 1.4. Bertsolaritzari buruzko oinarrizko kontzeptuak   | 14 |
| 1.4.1. Doinua   | 14 |
| 1.4.2. Neurria  | 15 |
| 1.4.3. Errima   | 17 |
| 2. ARLO PRAKTIKOA                                     | 17 |
| 2.1. Unitate didaktikoaren helburuak                  | 17 |
| 2.1.1. Curriculuma                                    | 18 |
| 2.1.2. Helburu didaktikoak                            | 21 |
| 2.2. Testuingurua                                     | 22 |
| 2.3. Metodologia eta baliabideak                      | 23 |
| 2.3.1. Metodologia                                    | 23 |
| 2.3.2. Baliabideak                                    | 23 |
| 2.4. Unitate didaktikoaren periodizazioa              | 24 |
| 2.4.1. Unitate didaktikoaren antolaketa               | 24 |
| 2.4.1.1. Bertsolaritzaren mekanika                    | 25 |
| 2.4.1.2. Ahozko testuen hausnarketa eta ekoizpena     | 25 |
| 2.4.1.3. Benetako bertso-saio baten antolaketa        | 27 |
| 2.4.3. Jarduerak                                      | 27 |
| 2.5. Praktikan topatutako baldintzak                  | 35 |
| 3. EMAITZAK   | 35 |
| 3.1. Bertsolaritza lantzeak hitza hartzea erraztu     | 36 |
| 3.2. Migrazioari buruzko gogoeta sakonak              | 36 |
| 3.3. Bertsoak prestatu bitartean, behintzat, euskaraz | 36 |
| 3.4. Besteen errekonozimendua jaso                    | 36 |
| 3.5. Bertsolaritzarekiko interesa piztu               | 37 |
| 3.6. Ezin ahozkotasuna sakontasunean landu            | 37 |

|   |    |
|---|----|
| 3.7. Kantuan ari zenari errespetua                | 37 |
| 3.8. Unitate didaktikoari aldaketak               | 37 |
| 4. ONDORIOAK                                      | 37 |
| 4.1. Huts egiteko beldurra gainditu               | 38 |
| 4.2. Enpatia landu eta hausnarketa egin           | 38 |
| 4.3. Eremu euskaldun trinkoa                      | 38 |
| 4.4. Autoestimuaeren lanketa                      | 39 |
| 4.5. Eskolaz kanpoko jarduera gisa eraginkorragoa | 39 |
| 4.6. Urteko programazioa                          | 40 |
| 4.7. Miresmena sorrarazten duen jarduera          | 40 |
| 4.8. Hutsak                                       | 41 |
| 4.9. Ondorio nagusia                              | 42 |
| BIBLIOGRAFIA                                      | 42 |
| ERANSKINAK  | 45 |
| ERANSKINAK I: Unitate didaktikoaren egokitzapena  | 45 |
| ERANSKINAK II: Ikasleei banatutako fitxak         | 49 |
| ERANSKINAK III: Errubrika                         | 55 |

## SARRERA

Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Practicum II ikasgaiaren bitartez, ikastetxe batean murgiltzeko aukera ematen die Bigarren Hezkuntzan Irakasletza Masterra egiten duten ikasleei, Master bukaerako lana garatzeko ingurune aproposa eskainiz. Hori izan da, hain zuzen, esku artean duzuen lana diseinatzeko abiapuntua, hau da, Iruñeko Txantrea auzoko Iñaki Ochoa de Olza DBHI ikastetxean egindako eskola praktikaldia. Egileak, Master bukaerako laneko zuzendariaren eta praktiketako tutorearen laguntzaz, aipatutako ikastetxeko D ereduko DBH 1-eko ikasleei zuzendutako unitate didaktiko bat proposatu eta praktikan jarri du. Helburu nagusia, bertsolaritzak eskaintzen dituen alegiazko egoera komunikatiboak, oinarri teknikoak eta sormen mugagaberako heldulekuak aprobetxatuz, ikasleen ahozko komunikazio gaitasuna sustatzea da, honek haien euskaraz egiteko hizkuntza ohiturak elikatuko dituelakoan.

Gai berdinez sakontasunean ikertu zuen Miren Artetxek bere doktoretza tesian (2019), bertso-eskolek erdal eremuko gazteen hizkuntza ohituretan duten eragina aztertu, eta hau aberasgarria dela ondorioztatu zuen bertan. Iñaki Ochoa de Olzako ikasleen errealitatearekin bat egin zezakeelakoan, ikuspuntu egokitzat jo dugu Artetxeren tesiak hartzen duena, eta beraz, bere lana izan da inspirazio iturri nagusia.

Bertsolaritzak gazteengan euskara erabilpena sustatzeko ahalmena duela hainbatetan arrazoitu den arren, ikerketa gehienak eskolaz kanpoko jardueretan oinarritzen dira, eremu horretan hizkuntza gaitasuna landu ez ezik, sozializazioarena bezalako faktoreak daudelako. Hala ere, Master bukaerako lan honetan, bertso-eskolek dituzten talde giroa, dinamikak, balore eta bertuteak ikasgela barrura sartu eta ahozko komunikazioa jorrazteko erabili dira. Era honetan, ikasleen ahozkotasuna modu ludiko, didaktiko eta berritzaile batean garatzeko aukera proposatu da.

Iñaki Ochoa de Olza DBHI ikastetxeko ikasleen errealitate soziolinguistikoa Nafarroako beste ikastetxe askotako ikasleenaren berdina dela justifikatzeko, lan honen arlo teorikoa datu soziolinguistikoak aipatuz abiatuko da. Izan ere,

proposatzen den unitate didaktikoa, ikastetxe zehatz batean baino, erdal eremuko edozein ikastetxetan erabilgarria izatea bilatu da. Honetaz gain, unitate didaktikoaren erabilgarritasunarekin jarraituz, Nafarroako bertsolaritzaren egoera zein den deskribatuko da, horrela, erdal eremuko gazte nafarrek bertso munduan dituzten aukera eta eskaintzak azalduko dira.

Arlo praktikoan proposatu den unitate didaktikoak Nafarroako Curriculumarekin bat egiteko, ahozko komunikazioaren konpetentziaren lanketan oinarritu da, eta horregatik azaldu da ahozkotetasunaren eta bertsolaritzaren arteko lotura atal teorikoan. Honetaz gain, aisialdiari ere aipamena egin zaio, ikasgelan landutakoak eskolaz kanpo jarraipena izan dezakeela argudiatzeko, hezkuntza arautuaren eta ez arautuaren arteko zubia eraikiz. Joxerra Gartziak, idazle, ikertzaile eta EHUko irakasleak, Berria egunkariko elkarrizketa batean adierazi zuen ideia hau honakoa esanda:

Non dago transmisio hori? Euskararen profesionalak hori asumitu behar du, eta hori egiten ez den bitartean, jai daukagu. Bolada batez [Joxean] Artzeren esaldi ezagun baten kartelak jarri zituzten tabernetan: «Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik». Bada, nik beste bat jarriko nuke horren azpian: «Hizkuntzak ez badio hobeto bizitzeko balio, hiztunak era berean esango dio kaixo eta adio» (Berria 2020-01-19).

## **1. ARLO TEORIKOA**

### **1.1. Hainbat datu soziolinguistiko**

Lan honek Nafarroako erdal eremuko ikasleekin erabiltzeko unitate didaktikoa proposatzen duenez, atal honetan unitate didaktikoaren diseinuan aintzat hartutako bi ardatz azaldu dira, bata Nafarroako erdal eremuko gazteen euskararen erabilera, eta bestea Nafarroako bertsolaritzaren egungo egoera. Unitate didaktikoa benetan erabili ahal izateko, zein bi testuinguruei lotuta dagoen ulertu beharra dago.

#### **1.1.1. Gazteen hizkuntza erabileraren egoera**

Nafarroako Gobernuak eta Euskarabideak argitaratutako 2018ko datu soziolinguistikoetan oinarrituz, Ochoa de Olza institutuko ikasleen batz besteko profila irudikatu da atal honetan. Bertara bai Iruñeko bai Antsoingo ikasleak doazela

aintzat hartuta, 1. gune soziolinguistikoaren barruan sartuko litzateke institutua, hau da, euskaldunen ehunekoa % 20-tik beherakoa duten udalerriek osatzen dutenean. Euskarabidea Euskararen Nafar Institutuaren lanean lau gune bereizten dira irizpide honen arabera. 1. gune soziolinguistikoa da sakontasun handiagoz aztertuko duguna, Iruñea eta Antsoain barnebiltzen baititu, eta aipatu bezala, euskaldunen ehunekoa % 20-tik beherakoa duena da. 2. gune soziolinguistikoa, ordea, euskaldunen ehunekoa % 20 eta % 49 bitartean duten udalerriek osatua da, eta adibideak aipatzearen, hemen sartzen dira Altsasu, Izaba edo Oronotze. Bereizten duten beste gune bat 3. gune soziolinguistikoa da, euskaldunen ehunekoa % 50 eta % 79 bitartean duten udalerriek osatua, adibiderako Lesaka, Basaburua edo Baztan. Azkenik, 4. gune soziolinguistikoa dago, euskaldunen ehunekoa % 80 eta gorakoa duten udalerriek osatua, eta baten bat aipatzearen, Goizueta, Areso edo Larraun.

Aztergai dugun Nafarroako eremu honetan, 1. gune soziolinguistikoan, euskara etxeko hizkuntza nagusitako jotzen dutenen ehunekoa txikiena da lau guneen artean: % 1,1 izanik. Gainera, adiskideekin euskaraz beti edo gaztelaniaz beste edo gehiago egiten dutenak % 38,3 dira gune soziolinguistiko honetan. Nafarroan gazteenak dira, 16-24 urte artekoak, euskaraz jakin bai, baina gaztelaniaz baino gutxiago egiten dutenen gehienak (% 8,2), hala ere, haiek dira euskal elebidunen eta elebidun orekatuen pisu erlatibo handiena daukatenak eta haiek dira ere euskararen ezagutza egiaztatu dutenak neurri nabarmenki handiagoan (C1-a % 21,2-k dute).

### **1.1.2. Nafarroako bertsolaritzaren egoera**

2018an, Kultur Intereseko Ondasunaren izendapena lortu zuen bertsolaritzak Nafarroan. <<Administrazioaren begietara, zaindu beharreko altxorra da bertsolaritza. Horrek esperantza ematen digu>> zioen Alaitz Rekondo Nafarroako Bertsozale Elkarteko lehendakariak *Bertsozale Elkartea gerora mugitzen* aldizkariko 2020ko udaberriko alerako idatzitako ekarpenean: <<Orekaren soka urte luzez kili-kolo egon ondotik, gaur egun gure egitasmoa egonkortze eta hazkunde fase batean dagoela erran dezakegu>> (Rekondo 2020, 58. or.).

2019-2020 ikasturtean, hezkuntza arautuan, 2.900 izan ziren ikastetxean bertsolaritza ikastaroak egin zituzten ikasleak, eta 300, aldiz, eskolaz kanpoko jardueratan parte hartu zutenak, 47 bertso-eskoletan banatuak.



Nafarroako Bertsozale Elkarteko egitasmoa hazi egin dela adierazi du Rekondok, hedapen geografikoan ez ezik, proiektuetan hazi, baita plaza berrien lorpenean hazi ere. Hain zuzen, bertsoa oinarri duten ekitaldiak Nafarroan zehar eskuin-ezker, goiti-beheiti, ugariak dira, lekuak eta herriak ugariak izan diren bezalaxe.

Bertso-eskolek ahalmena dute autonomiaz nahierako ekimen propio eta herrikoiak, hau da, instituzioen menpe ez daudenak, antolatzeko, baina badira Nafarroan izaera instituzionala duten hainbat ekimen, bertsolaritzaren eszenan oso errotuta daudenak. Horien artean kokatzen da, adibidez, Bardoak Nafarroako taldekako txapelketa, helburua bertsolari ez hain arituengana iristea duena, gai-jartzaile, bertsotan zein antolatzaile gisa taldean parte hartzeko aukera ematen zuena, bakarkako txapelketak baino kutxu ludikoagoa bultzatuz. Oso errotuta dagoen beste ekimen bat, Bertsoaroa-rena da, Iruñeko Udalaren eta Nafarroako Bertsozale Elkartearen artean antolatzen den zikloa, bertsolaritzaren erakusleiko garrantzitsu bilakatu dena. Hiru hamarkada bete zituen 2020an. Gazteei zuzendua, Nafarroako Bertso Eskolen Eguna, Nafarroako Eskolartekoa eta Negulekuak dira azpimarratu beharrekoak, Nafarroako denetarik txokoetako ikasleei elkarren arteko harremanak garatzeko aukera ematen diena. Bakarkako txapelketei dagokienez, hiru dira nabarmenenak Nafarroan: Bertsokabi Sariketa, Mariano Izeta Sariketa eta Nafarroako Bertsolari Txapelketa.

Euskal Herri osoari begiratuz, 2018an publikatu zen *Kultura ez da bat-batekoa* ikerketara jo genuen, bertso saio kopuruaren hazkundean, formatu txikiko saioak nabarmentzen direla ikusteko, eta nola horrek aniztasunerako joera islatzen duen (Zubiri et al. 2018). Bestalde, bertso-saio gehien egiten diren gunek, gaur egun, hirigunek direla ikusi da, bertsolaritza landa-eremutik hiritartu egin da, beraz. Euskal herritar eta euskal elebidun kopuruaren gehiena hiriburuetan eta inguruetan bizi diren bezala (Euskal Herritarren % 62 eta euskal elebidunen % 60), bertso-saioen % 43 hiriburu-eskualdeetan egiten dira orain (Zubiri et al. 2018).

Xenpelar Dokumentazio Zentroan bildutako datuen arabera, Zubiri, Aierdi eta Retortillo ikertzaileek ikusi zuten 1990etik 2018-ra bertsolarien kopurua laukoiztu egin dela Euskal Herri osoan, 1990ean 290 izatetik, 2018an 859 izatera pasatu dira.

Antolatutako bertso-saioen kopurua ere hazi egin da, 1990ean 419 izan baitziren eta 2018an 1.764. Publiko kopuruaren datuak interpretatzen zailagoak izan baziren ere, hiru ikertzaileek adierazi zuten 2000. urtea baino lehen bertso-saioak gutxiago baziren ere, masiboak zirela, eta urte hartatik aurrera, bertso-saio kopurua handitu bazen ere, ikusle gutxiago izan zutela batz-beste; hargatik, publikoaren datu kuantitatiboak egonkortu dira. Dena den, hauek guztiak hazkundearen frogatzat hartzen dituzte.

Bertsolaritza, gutxi gorabehera, gainerako kultura-adierazpideen mailan dagoela ere erakutsi zuten ikerketa hartan. Urtean zehar gutxienez behin bertso-saioetara joaten den euskal elebidunen % 17,3, aisialdiko liburuak irakurtzen dituztenen % 20,7-rekin alderatu zuten, edo kontzertuetara joaten diren % 16,0 zein antzerkira joaten diren % 12,5-rekin, denek antzeko zale kopurua dutela erakutsiz, eta bertsolaritza ez dela arraroa edo normaltasunaren kanpoko kultura-adierazpena. Bertsolaritzak jarraitzaile kopuru egonkorra duela adierazi zuten gainera, haiek beraiek 2007an egin zuten ikerketa batean ateratako datuen arabera, euskaldunen % 14 bertsozale sutsua baitzen, % 26 bertsozale moderatua, % 29 bertsozale periferikoa eta % 32 ez zen bertsozalea. Datu absolutuetan, soilik bertsozale sutsuak direnen ehunekoari erreparatuta, 800.000 hiztunera iristen ez den hizkuntza batean, adierazi zuten haien artean 100.000 bertsozale izango liratekeela, eta BECeko finalaren audientziei begiratuta, garbi dago sutsu izan edo ez, bertsozale kopurua 100.000koa baino handixeagoa dela (Zubiri *et al.* 2018<sup>1</sup>).

## 1.2. Bertsolaritza eta ahozkoasuna

Ikastetxe barrenean praktikara eraman beharreko lan batez ari garenez, eta Curriculumean islada izan beharko lukeela jakinik, ahozkoasunaren markoan txertatzea da aproposena. Joxerra Garziak “Bertsolaritza in the School Curriculum”

---

<sup>1</sup> Siadeco-k egin zuen Bertsolaritzaren azterketa soziologikoa lehenengo aldiz (1991-1993). Aierdik, Retortillok eta Zubirik bigarrenean (2005-2007) parte hartu zuten Alkorta eta Aldaz-ekin batera, eta hiruek hirugarren azterketa soziologikoa (2015-2018) egin zuten. Hirugarrenean, guk lan honetan aipatu dugunean, bi ikerketa teknika erabili zituzten: batetik, *in-depth* interview edo elkarrizketa sakona esaten zaion teknika kualitatiboa, eta, bestetik, galdetegi kuantitatiboak. 2015 eta 2018 urteen artean, 32 elkarrizketa sakon egin zituzten eta 1.377 galdetegi pasatu, 600 ohiko bertso-saioetan eta 777 Txapelketa Nagusian (bigarren ikerketan, 2005-2007koan, 32 elkarrizketa sakon eta 2.267 galdetegi pasatu zituzten, horiek ere hirugarren ikerketan aintzat hartuak). Horietaz gain, 3 *focus group* eta 27 partaideko *delphi* bat ere egin zituzten. Azkenik, Xenpelar Dokumentazio Zentroko zenbait datu aztertu zituzten.

(2007) artikuluan gaur egun hezkuntza sisteman ahozketasuna kolokan edo gutxietsia dagoela azaltzeko bi arrazoi eman zituen:

Bata, Edukiari dagokionez, euskal ahozketasunaren adierazpen ezberdinak, kasurik onenetan, garrantzirik gabeko anekdota exotiko huts gisa baino ez direla agertzen. Ikasleek hobeki ezagutzen baitute On Kixote, bertako Fernando Amezketarra edo Maixu Juan bezalako figura literarioak baino. Beste arrazoia ezagutza transmititzeko metodoetan datza, berez, hitz idatziak gordetzen baitu oraindik lehenengo postu honetan. Argi esatearren, gure sistemako ikasle ohikoa ignorantea da. Bitartean, adituen arabera, eraginortasunez komunikatzeko gaitasuna da gehien balioesten dena gaur egungo informazioaren gizartean (Garzia 2007, 70. or., itzulpena nirea).

Ildo honi jarraituz, Garzia-k Euskal Herrian horren arrakastatsua den ahozko adierazpena dakar gogora, bertsolaritza, alegia, modu eraginkor eta ekonomiko batean, emozioaz gain, kultura ere transmititzeko balio duena. Eta berak lehen aipatu bezala komunikatzeko gaitasuna hain garrantzitsua den aro honetan, <<beraz, azpimarratu beharra dago euskal bertso inprobisatua helburu hori lortzeko tresna eraginkorra izan izana erakutsi duela>> (Garzia 2007, 74. or.).

Kike Amonarrizek ere, “Ahozketasuna soziolinguistikaren behatokitik” (2015) artikuluan idatzi zuenaren arabera, bat egiten du ahozketasunaren aldeko joerekin. Une honetan ikastetxeak dituen erronka nagusiak zeintzuk diren zerrendatu, eta hauek zehaztu zituen:

Ikasleen euskararen ezagupena orokortu eta sendotzea. Erabilera dinamikak sortu eta mailaz-maila egonkortzea. Eskolaren mugak gainditu eta erabilera eskolako hormetatik kanpo hedatzea (Amonarriz 2015, 123. or.).

Ahozketasuna lantzearen alde egiten du, beraz, euskara bera eta tokian tokiko baliabide linguistikoak lantzeko bide gisa ulertzen baitu. <<Era horretan, gure ondare linguistikoa berrerabiltzeko aukerak sortzen dira, hizkuntza sormenari atea zabaltzen zaizkio eta erabilera inertziak eragiten dira>> (Amonarriz 2015, 123. or.). Bide honetan, metodologia eta teknika berriak behar ditugula azpimarratzen du. Gainera, ahozketasuna lantzerakoan oso aintzat hartu beharreko aspektu batzuk

aipatzen ditu gero, eta guk, denak interesgarri eta funtsezkoak diren arren, lan honekiko lotura dutenak aipatu nahiko genituzke:

Hizkuntzaren ikasketa jolas eta gozamen bihurtu. Kultur testuingurua jorratu eta erabilerarako aukerak bermatu klaseetatik kanpo. Mintzalagunak, erreferentziak, ikastaroak, ekitaldiak... Euskararen irakaskuntza ezin daiteke gramatika baten ikasketa izan, kultur testuinguru jakin batean kokatzen den komunikaziorako hizkuntza baten ikasketa baizik. Konplexu etagabezia linguistikoak gainditu. Hiztunen autoestimu linguistikoa indartu, batez ere, ingurune erdaldunetan. Adimen emozionalaren teknikak landu ikasketa prozesuan eta ondorengo erabilerara begira (Amonarriz 2015, 123. or.).

Konplexu etagabezia linguistikoak aipatzen dituen puntuak Iruñerriko gazte askoren kasua azaltzen duela uste dugu, erabiltzeko zailtasunak eta adierazmena mugatua izan eta, horren jabe izateak, haien euskararen kalitatearen gaineko kezka ematen baitie eta ziurtasuna kendu (Kasares 2010).

Azken puntu honi Miren Artetxek garatutako teoriaren zertzelada batzuk gehitu nahiko genizkioke, izan ere <<bertsotan aritzea euskaraz aritzea da, bertsotan trebatzea euskaraz trebatzea, eta gaitasunak zein erabilerak lotura dute hiztunak bere buruari egozten dion legitimitatearekin>> (Artetxe 2018, 65. or.). Gauza jakina da bertsotan aritzeko hizkuntza gaitasun altua behar dela, izan ere, hizkuntza baliabide asko eskatzen du adierazi nahi diren ideia eta diskurtsoa egitura metriko batean sartzeak, errimatuz gainera. Ordea, Artetxek ere txanponaren beste aldea aurkezten digu, bertsotan trebatzeak ezinbestean baitakar norbere hizkuntza baliabideak areagotzea, oharkabean zein berariaz: <<Bertsotan ari denak, beraz, badaki hizkuntza lantzen ari dela>> (Artetxe 2018, 55. or.).

### **1.3. Bertsolaritza eta aisialdia**

Miren Artetxek 2019ko *Ipar Euskal Herriko bertso-eskoletako gazteen hizkuntza ibilbideak* tesian sakontasunez landu zuen bertso-eskolek, eskolaz kanpoko jarduera gisa, gazteen euskara erabileran izan dezaketen eragina. Bertso-eskolak eskolaz kanpoko jardueren parte diren arren, gure unitate didaktikoan horien elementu onuragarriak hezkuntza arautuan txertatuko ditugu, ikasleen ahozkoitasuna lantzeko baliogarriak direnak hain zuzen. Izan ere, bertsolaritzak badu zer eskaini ugari ikastetxetako ikasgeletara eraman daitekena, ez duena bertso-eskolen eremuaren

barruan geratu beharrik. Artetxek dioenez, bertso-eskola bera euskaraz sozializatzeko eremu izan daitekeen bezala, bertso munduak bertso-eskolaz kanpoko aisialdi eskaintza zabala eskaini diezaieke gazteoi, eta gero eta gehiago hasten dira sozializatzen bertsolaritzan bertso-eskolaz kanpo: <<Gazte gisa sozializatzeko eremu oso batekin egiten dute topo, aisialdi eskaintzaren jiran>> (Artetxe 2019, 71. or.).

Argi uzten du, gainera, bertsolaritzan sozializatzea ez dela bertsotan ikastea bakarrik. Bertsolaritzaren ekosistema osoa sozializazio-gune bat dela dio, hezkuntza formala edo ez-formala, bertso-saioak, lehiaketakoak edo bestelakoetan parte hartzeko aukera emanik, izan bertsolari, entzule edo antolatzaile gisa. Hauetaz gain, badaude bertsolaritza kontsumitzeko bestelako tarteak, telebistan edo interneten bertsolaritzari buruzko hedabide espezifikoak baitaude (Artetxe 2019).

Artetxek deskribatzen duen egoera berdina gerta daiteke Nafarroan, gazteek beren kabuz, autonomiaz, zein Nafarroako Bertsozale Elkartearen edo tokian tokiko kultura eragileen laguntzaz, ahalmena baitute haien sozializazio bide propioak eraikitzeko, bai saioak antolatuz, bai saioetan kantatuz, bai topaketa, jaialdi edo ekimenetan parte-hartuz, baita bertso munduko lagunekin festa eginez ere, eta dena euskaraz. Azken ideia hau azpimarratzen du Artetxek hain justu:

Bertso-munduan sozializatzea euskararen erabilera trinkoa ezaugarri duen mundu batean sozializatzea da, beraz. Baina, ez hori bakarrik: bertso-munduan sozializatzea euskararen aldeko eremu diskurtsiboan sozializatzea ere bada (Artetxe 2018, 57. or.).

Aurreko atalean aipatu dugun *Kultura ez da bat-batekoa* (2018) ikerketan, Zubirik, Aierdik eta Retortillok sozializazio esparruko hainbat gune zehazten dituzte; horien artean, Artetxeren tesiko aztergai den bertso-eskola. Praktika-komunitate bat osatzen dutenek partekatu egiten dute zerbaitekiko interesa, elkarrengandik ikasten dute, eta parte hartuz bihurtzen dira komunitateko kide (Lave & Wegner, 1991 *apud* Zubiri et al. 2018, 69. or.). Ikerlari hauek defendatzen dute, bertso-eskolek eskaintzen duten sozializatzeko aukera horregatik izanen ez balitz, nekez bertsozaleetako liratekeela hainbeste ume eta nerabe. Dena den, Artetxek aipatutakoaren harira, haiek ere bat datoz bertsolaritzak, bertso-eskolatik harago,

baduela <<beste inork eskaintzen ez duena>> (Zubiri et al. 2019, 72. or.), laguntasun sareak eskaintzen ditu, herrian bertan eta herritik kanpo, beste era batera inola ezagutuko ez zuketenean asko ezagutzeko aukera. Nerabe edo haur baten pentsamenduak balira bezala, <<egon beharko nukeen jendearekin nago, gustuko ditut, eta, pentsa, egiten ari naizena ondo iruditzen zaie baita nire familiari eta irakasleei ere>> (Zubiri et al. 2018, 72. or.).

Bestalde, Zubirik, Aierdik eta Retortillok esperientzia kolektibo batean inplikatzen dituzten aukera ematen duela ere adierazi zuten, hau da, bertsolaritzaren proiektu soziokulturalak borondatezko lana egin nahi izateaz gain, hura euskaraz egiten den kulturaren alde zuzendu nahi dutenentzako testuinguru bikaina eskaintzen duela, eraginkortasunez eta modu jarraituan lan egiteko aukera ematen baitu, baita sortzaileak ez direnentzat ere.

Bertso-eskola, hainbat sozializazio bidetarako atea izateaz gain, sortzaile profila duten nerabe eta gazteentzat sormenean aritzeko leku bakarretakoa da (Zubiri et al. 2018, 74. or.), testuinguru kolektibo batean behintzat. Gainera, gero beste kultura-adierazpenetan ibili diren hainbatentzat bertsolaritzaren espazioek harrobi lana egiten dutela dirudi.

#### **1.4. Bertsolaritzaritzari buruzko oinarrizko kontzeptuak**

Atal honetan bertsolaritzaren alor teknikoa osatzen dituzten kontzeptuak azaldu ditugu, eta horretarako, Andoni Egaña-k, Jon Sarasua-k eta Joxerra Garzia-k 2001ean idatzi zuten *Bat-bateko bertsolaritza* liburuan oinarritu gara. Bertan, bertsoak bat-batean sortzeko egin behar diren prozesu eta ezagutzak sakontasunean deskribatzen dituzten arren, bertsoak hiru oinarrizko zutabe dituela ondorioztatzen dute, hain zuzen, atal honetan jarraian azaldu ditugunak: doinua, neurria eta errima. Hauek dira lan honek proposatzen duen unitate didaktikoa erabili ahal izateko ezagutu beharreko oinarrizko kontzeptuak.

##### **1.4.1. Doinua**

Munduan badira beste inprobisatzaile asko, Mexiko, Kuba, Mallorca... eta beste txoko askotan musika tresnaren baten laguntzaz aritzen direnak. Bertsolariak, ordea,

bere ahotsa baino ez du erabiltzen, eta inprobisatutako testuak abestuz adierazten ditu, doinuez baliatuz.

Garzia-k, Egaña-k eta Sarasua-k liburuan (2001) hiru motatako doinuak bereizi zituzten. Alde batetik, usadiozko doinu herrikoiak, autore jakinik ez dutenak eta mendez mende herriak gorde dituenak. Bestalde, neurritz parera datozen doinu berriak, hau da, bertako zein atzerriko kantariengandik ikasitako doinuak, bertsolaritzako neurri zehatzekin bat egin dezaketanak. Azkenik, propio sortutako doinuak sailkatu zituzten, musikariren batek bertsotan erabiltzeko propio asmatutako doinuak.

Liburuan aipatu zuten ere Juanito Dorronsorok, bertso doinuetan aditu den ikerlariak, 2.775 bildu eta sailkatu dituela. Hala ere, existitzen diren guztien artean, ehun bat baino ez dira jendaurrean erabiltzen. Doinu hauek guztiak, iturriaz gain, adierazi dezaketen sentimenduen arabera ere sailkatu ohi dira. BDB Bertsolaritza Datu Basean halaxe bereizten dituzte, kontakizunezkoa, amodiozkoa, irrizkoa eta sentimenduzkoa. Bertsolariak aintzat izan behar du, transmititu nahi duen ideia entzuleengana iristarazteko, hitzen bidez esaldi zuzenak osatzea bezain garrantzitsua dela doinu egokia aukeratzen jakitea.

#### **1.4.2. Neurria**

Bertsoa arau unibertsal batzuetan oinarrituta eraikitzen da, silaba kopurua eta oin kopurua zehazten dituztenak. Bertsolariak, bat-batean ari delarik, ez du sekula silaba kopurua zenbatzen. Arreta handiegi eta nekeza eskatuko lioke horrek. Bertsolariak badaki kantuan hasi aurretik aukeraturiko doinua zer neurritakoa den, eta beraz, doinu horrek lagunduko dio hitzak sartzen. Hala ere, honek badu arrisku bat, zenbait doinuk neurriak zehaztutako silaba kopurua baino bat gehiago sartzera eraman dezakeelako bertsolaria, zenbatzen baino, belarriz ari baita inprobisatzen. Puntu batean behar baino silaba bat gehiago erabiltzeari, hankaluze egitea esaten zaio, eta behar baino silaba bat gutxiagori, hankamotz (Garzia et al. 2001).

Garzia-k, Egaña-k eta Sarasua-k (2001) neurria menperatzeko modu bakarra praktikatzeko dela diote liburuan, eta plazan erabiltzen diren neurri ohikoenak hauek direla:

- Zortziko handia: 10 / 8 A / 10 / 8 A / 10 / 8 A / 10 / 8 A. Zortziko handia beraz, lau puntutako ahapaldia da. Lerro bakoitietan hamar silaba ditu eta zortzi bikoitietan, azken hauetan errimatzen duen hitza edo oina doalarik.
- Hamarreko handia: zortziko handiaren egitura bera du baina puntu bat (edo bi lerro) gehiagorekin. Horrek esan nahi du zailtasuna gehitu dugula, errimatzen duen beste hitz bat aurkitu beharko baita. Ahapaldi mota hau, oro har, lehengoa baino egokiagoa izan daiteke berbaldi landuagoak adierazteko, testuak leku gehiago har dezakeelako zortziko handian baino.
- Zortziko txikia: 10 / 8 A / 10 / 8 A / 10 / 8 A / 10 / 8 A / 10 / 8 A. Zortziko txikian, zortziko handian bezala, lau puntu eta zortzi lerro izango ditugu, eta errima ere lerro bikoitietan. Baina lerro bakoitzaren silaba kopurua aldatuko da. Silaba kopurua txikiagoa izatean, berbaldia laburtu egin beharko dugu eta ondorioz neurri-mota hau egokiagoa izango da gehienetan ofiziotako egoera bizi eta umoretsuetarako, berbaldi luze dramatiko edo epikoetarako baino.
- Hamarreko txikia: hamarreko txikiak aurrekoaren egitura bera du, baina puntu bat eta errima bat erantsirik.
- Koplak: kopla handiaren kasuan, zortziko handiaren erdia litzateke, hau da, 10 eta 8 silabako lau lerro, errimatzen duten bi hitzekin, eta kopla txikiaren kasuan, berriz, zortziko txikiaren erdia, hots, 7 eta 6 silabako lau lerro.
- Bestelakoak: Badira egitura berriagoak ere, askotan bertsolariek beraiek sortuak, txapelketetarako gehienez. Zailtasun teknikoaren gailurra topatu nahi izaten da horrelakoetan. Bertsoa luzeagoa, errima gehiago... arrisku handiagoa estrapozo egiteko, baina arrakasta nabarmena bidea ongi burutuz gero. Sarasua-k, Garzia-k eta Egaña-k beste arrazoi bat adierazi zuten doinu berezi hauek erabili nahi izateko hautua azaltzeko:

Egungo bertsolaritza modernoaren ezaugarrietariko bat da, testu luzeagoaren beharra. Bertsolariak bere originaltasuna azaltzeko, bere arrazoibidearen konplexutasuna kokatzeko, gaiarekiko distantzia hartzeko... lekua behar du testuan. Testuak berak hartzen du bertsoaren zama, testuingurua ez delako garai batean bezain gotorra (Garzia et al. 2001, 87. or.).



### 1.4.3. Errima

Bi hitzek errimatzen dutela esateko, hitzek bukaeran bokal berdinak izan beharko dituzte, hitza a-z bukatuz gero bi (**zarata** - **pirata**), eta bestela batekin, azkenekoarekin, nahikoa (**egoki** - **poliki**). A-z bukatzen diren hitzek a bera eta beste bokala errepika daitezen eskatzen dute, baina, beste edozein bokalekin bukatzen diren hitzekin nahikoa da bukaerako hori errepika dadin, adibidez: **akabo**, **balego**, **aldirio**, **arkeologo**, hau da, **a\_o**, **e\_o**, **i\_o**, **o\_o** edo **u\_o**. Bokalez gain, gutxienez familia bereko kontsonante bat izan beharko dute komunean. Beraz, hauek dira kontsonantearen arabera sailkatzen ditugun sei errima familiak:

- B-G-R-D: adibidez, **Kuba**, **muga**, **lilura** eta **uda** hitzek errimatzen dute, hitzen bukaerako kontsonanteak B-G-R-D familiakoak baitira, eta bokalak, **u\_a**. Edo, bestelako adibide bat erakustearren: **ere**, **xede**, **errege**...
- K-P-T: adibidez: **niretzat**, **beltzak**, **ontzat**... Edo, bestela: **errepika**, **dinamita**, **txipa**, **gramatika**...
- M-N: adibidez: **goma**, **gona**, **sona**, **soma**, **siploma**, **ona**... Baita: **ipini**, **komeni**, **mami**, **honi**, **lami**... ere.
- S-TS-X-TX-Z-TZ: adibidez: **asu**, **baxu**, **muxu**, **Altsasu**, **diezu**, **urtsu**, **kutxu**... Edo beste adibide bat ematearren: **isatsa**, **behatza**, **kaxa**, **kalabaza**, **jasa**...
- L: adibidez: **horrela**, **eskela**, **jela**, **dena dela**, **kiniela**... Edo horrela ere: **kapelu**, **angelu**, **geztelu**, **eskandalu**...
- RR: adibidez: **harro**, **karramarro**, **erro**, **orro**, **zorro**... Edo: **barra-barra**, **meharra**, **beharra**, **indarra**...

## 2. ARLO PRAKTIKOA

### 2.1. Unitate didaktikoaren helburuak

Aurkeztuko dugun unitate didaktikoak ahozkotasuna erdigunera ekartzea bilatzen du, aurretik azaldu dugun bezala, ahoz komunikatzeko gaitasuna lantzea oso garrantzitsua izateaz gain, egungo hezkuntza sisteman baztertuta geratu ohi delako.

Irakasleak ahozkotasuna lantzeko topa ditzakeen muga eta oztopoei aurre egiteko modua proposatu dugu, eta horretarako bertsolaritza oinarri hartu. Bertsolaritzan, finean, egitura zurrun eta arau zehatz batzuei jarraitu behar izateak inprobisaziorako

helduleku tinko bat eskaintzen dio ikasleari: errima, neurria, gaia eta doinua jartzen dira esan nahi den horren asmoaren eta emaitzaren artean. Ideiak eta irudimena berezkoa dute ikasleek, eta horri forma ematea baino ez zaie falta. Arauek ideia mugatzeak ez du zertan txarra izan behar, bide jakin bat erakusten diolako sortzen ari denari, nondik hasi eta non bukatu argiago zuzendu. Erronka bat dakarrenez, muga hori gainditu nahi izateak ikaslearengan motibazioa pizteko ere balio dezake, eta bukaerako emaitza beti izanen da euskal ahozko testu bat, gainera. Bertsolaritzan, nahitaez, etengabe agertuko zaizkio jada badituen komunikatzeko gaitasun horiek bihurritu eta praktikan jartzeko arrazoi eta aukerak. Unitate didaktiko honetan, beraz, lan ildo nagusia bertsolaritza izanen da, eta hura baliatuz, hainbat helburu lortu nahiko genituzke, jarraian azalduko ditugunak.

### 2.1.1. Curriculum

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 24/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa, izan da unitate didaktikoaren diseinua egiteko kontuan izandako ardatz nagusia. Legearen xedapenetan gaitasunei garrantzi handia ematen zaie, eta unitate didaktikoan, 1. taulan ikus daitekeen bezala, ahalik eta gaitasun gehien lantzea bilatu dugu, betiere gaiarekin lotura dutela bermatuz, egingarria izan dadin. Curriculumak dioena aipatuz argudiatuko dugu erabakia: <<ikasleei gaitasun bat baino gehiago aldi berean lantzeko aukera emanen dieten ikaskuntza jarduera integratuak diseinatuko dira, ikasia errealitateari aplikatu diezaioten>> (24/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa, 4. or.).

| <b>Gaitasunak</b>   |
|---|
| <ol style="list-style-type: none"> <li>1) Hizkuntza komunikazioa.</li> <li>2) Ikasten ikastea.</li> <li>3) Gaitasun sozial eta zibikoak.</li> <li>4) Ekimena eta ekintzailtza.</li> <li>5) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.</li> </ol> |

1. Taula: Gaitasunak

Honetaz gain, 2. taulan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osoko helburuak, hau da, etapako helburuak, zein diren aintzat hartu, eta gure unitate didaktikoaren bitartez lortzea bilatzen ditugunak zerrendatu ditugu, zinez bat egiten dutelakoan.

## **Etapako helburuak**

- a) Beren betebeharrak arduraz bereganatzea, besteekiko errespetua gordez beren eskubideak ezagutu eta gauzatzea; pertsonen eta taldeen artean tolerantzia, lankidetzeta eta elkartasuna praktikatzeko; elkarrizketa gauzatzea giza eskubideak eta emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera berdintasuna sendotuz, horiek guztiak gizarte plural batean amankomunak diren balioak direlako; eta herritartasun demokratikoa gauzatzeko prestatzea.
- b) Diziplina, ikasketa eta lanerako azturak, bakarkakoak eta taldekoak, garatu eta sendotzea, ikasteko atazak egoki burutzeko nahitaezko baldintza modura eta nor bere burua garatzeko baliabide gisa.
- c) Sexuen arteko aldeak eta sexuen arteko eskubideen eta aukeren berdintasuna balioetsi eta errespetatzea. Pertsonen bazterkeria arbuiatzea, sexuagatik edo bestelako edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialengatik. Gizonen eta emakumeen arteko bazterkeria dakarten estereotipoak arbuiatzea, baita emakumearen kontrako indarkeria agerpen oro ere.
- d) Gaitasun afektiboak indartzea nortasunaren eta besteekiko harremanen esparru guztietan, indarkeria, edozein motatako aurreiritziak eta portaera sexistak arbuiatzea eta, orobat, gatazkak modu baketsuan ebatzea.
- e) Oinarrizko trebetasunak garatzea informazio iturrien erabileran, zentzu kritikoz, ezagutza berriak eskuratzeko. Teknologien eremuan oinarrizko prestakuntza eskuratzeko, bereziki informazio eta komunikaziokoetan.
- g) Espiritu ekintzailea eta norberarenganako konfiantza, parte-hartzea, zentzu kritikoa, ekimen pertsonala eta ikasten ikasteko, planifikatzeko, erabakiak hartzeko eta erantzukizunak bereganatzeko gaitasuna garatzea.
- h) Gaztelaniazko eta, kasua bada, euskarazko testu eta mezu konplexuak, ahoz eta idatziz, zuzen ulertu eta adieraztea, eta literatura ezagutzen, irakurtzen eta ikasten hastea.
- m) Sormen artistikoa preziatzea eta agerkari artistiko desberdinen hizkuntza ulertzea, adierazpeneko eta irudikapeneko askotariko baliabideak erabiliz.

### 2. Taula: Etapako helburuak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculumean ez da inon ageri nahita nahiez eduki guztiak landu behar direnik, ordea, garrantzi handia ematen zaio gaitasunak eskuratu eta helburuak betetzeari. Edukiak, beraz, gaitasunak eta helburuak eskuratzeko tresna dira: <<helburuak lortzen eta gaitasunak eskuratzen laguntzen duten edukiak edo ezagutzen, abilezien, trebetasunen eta jarreraren multzoa>> (24/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa, 3. or.). Horregatik, 3. taulan ageri den bezala, eduki gutxi batzuk baino ez ditugu txertatu, 2. taulan aipatutako gaitasunak lortzeko eduki hauek nahikoa dira. Gaitasunak, ebaluazio irizpideak eta ebaluazio estandarrak edukien gainetik lehenetsi ditugu Curriculumean oinarrituz.

## **Edukiak**

- a) Bat-bateko solasaldien zentzu globala eta solaskide bakoitzaren komunikazio asmoa

behatzea, hausnartzea, ulertzea eta baloratzea eta haien oinarrizko arauak aplikatzea  
b) Ahozko testuen ekoizpen eta ebaluaziorako behar diren estrategiak ezagutzea eta progresiboki modu autonomoan erabiltzea.  
c) Bat-bateko elkarrizketetan parte hartzea, ahozko praktika hauetan elkarri eragiteko, txanda hartzeko eta kortesiazko oinarrizko arauak zainduz.

### 3. Taula: Edukiak

Ahozko komunikazioa garatu duten ala ez balioesteko, ezinbestekoa da ebaluazio irizpide argiak izatea, eta hori isladatu dugu 4. taulan. Curriculumak hala dio: <<Ebaluazio irizpideak, gaitasunen eskuratze maila eta helburuen lorpen maila zehazteko balio dutenak>> (24/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa, 3. or.).

#### **Ebaluazio irizpideak**

a) Ahozko testuen zentzu orokorra ulertzea.  
b) Bat-bateko elkarrizketetan parte hartzea eta haietan izandako esku-hartzea baloratzea.  
c) Komunikazio egoera errealak edo alegiazkoak birsortzea, trebetasun sozialen, ahozko eta ez-ahozko adierazpen abilezien eta errealtateen, sentimenduen eta emozioen irudikapenaren garapen progresiboa sustatuz.

### 4. Taula: Ebaluazio irizpideak

Azkenik, ebaluatu beharreko ikaskuntza estandarrak zehaztu ditugu 5. taulan, irakaslearen errubrika sortzeko oinarritzat hartu ditugunak (errubrika eranskinak III atalean dago). Ebaluazio irizpideen zehaztapen bezala deskribatzen ditu Curriculumak (24/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa).

#### **Ebaluatu beharreko ikaskuntzako estandarrak**

a) Integratzen eta interpretatzen du:  
–Ahozko jarraibideak jarraitzen eta interpretatzen ditu, emandako hierarkia errespetatuz.  
–Hizlariaren zenbait estrategia identifikatzen eta interpretatzen ditu, kasu, galderak eta errepikapenak.  
b) Testuaren edukiaren gainean hausnartzen du:  
–Emandako informazioa bere aldez aurreko ezagutzekin eta esperientziarekin erlacionatzen du eta egiazko eta alegiazko gertaeren artean bereizten du.  
c) Informazio esanguratsua atxikitzen du eta informazio zehatzak erazten ditu.  
d) Bere ahozko ekoizpeneko akatsak eta inorenak atzematen ditu, ebaluazioaren eta autoebaluazioaren ohiko praktikatik abiatuz, hura hobetzeko soluzioak proposatuz.  
e) Planifikatu gabe hitza hartzen du ikasgela barruan, diskurtso formalen eta bat-batekoen arteko antzekotasunak eta diferentziak aztertuz eta erkatuz.  
f) Gaiari lotzen zaio, ez du zehaztasunik gabe hitz egiten eta moderatzailearen jarraibideei kasu ematen die eztabaidetan eta mahai-inguruetan.  
g) Bere eta inoren elkarrizketetako esku-hartzeak ebaluatzen ditu.  
h) Ahozko elkarrizketak gidatu behar dituzten kortesiazko arauak errespetatzen ditu, hitz

egiteko txandara egokituz, espazioa errespetatuz, keinuak behar bezala eginez, gainerakoak aktiboki entzunez eta agurtzeko formulak baliatuz.

i) Komunikazio egoera errealak eta alegiazkoak dramatizatzen eta inprobisatzen ditu.

5. Taula: Estandarrak

### **2.1.2. Helburu didaktikoak**

Alde batetik, talde txikietan bada ere, ikasle guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten nahi dugu. Normalean, klasean jende aurrean hitz egiten badute, aurkezpen formalen eremuan izan ohi da, ikasgai bateko gai zehatz bati lotua. Oraingoan, ordea, tonu natural eta erregistro informalagoa bilatuko dugu.

Bestalde, enpatia eta sormena lantzea bilatuko dugu, rol jolasa balitz bezala. Ikasleei egoera zehatzen aurrean jarrita, haiena ez den paper batean kokatu eta beste norbaitenak lirartekeen sentipen eta ideiak transmititu beharko dituzte, bertsolaritzan bertsolariekin gertatzen den bezala.

Hauetaz gain, euskara modu ludikoan landu dezaten bilatzen dugu, hizkuntzarekiko gozamina eta atxikimendua garatzeko, testu liburutik eta azalpen magistraletatik harago.

Ikaskideen aurrean hitz egiteko eta huts egiteko beldurra galtzea izango da beste helburu bat, bertsolaritzak horretan ere lagun dezakeelako. Bertso.eskoletan hori izan ohi da jardunaren muina: beldurrik gabe ideia bat adierazten saiatzea, teknikoki zuzena izan ez arren, eta lagunen arteko harremanak estutzeko ez ezik, praktikatzearen praktikatzez akatsak era positibo eta eraikitzaileagoan ikusteko aukera ematen da, eta dinamika hori bera eraman nahiko genuke ikasgelara. Lagunek elkarri akatsak barkatzen badizkiete, eta animoak eman, errazagoa da nork bere buruari egindako hutsekiko intransigentzia desagertzea.

Azken helburua bertsolaritza ezagutzea da, euskal kulturaren elementu garrantzitsutzat ez ezik, zaletasun berri baten giltza gisa ere bai, eskolaz-kanpo ikastetxea ez den beste eremu euskaldun batekiko lotura estutuz.

## 2.2. Testuingurua

Proposatutako unitate didaktikoak 50 minutuko 8 saio irauten du, ordea, Iñaki Ochoa de Olza BHI ikastetxean bi saio eta erdi lantzeko aukera izan genuen. Unitate didaktikoa zein baldintzatan garatu zen ulertu ahal izateko, institutua aurkeztuko dugu hurrena.

Iñaki Ochoa de Olza BHI Institutua Iruñeko Txantreako Ezkaba auzoan eraiki zuten 2012an. Ikastetxeak 1 eta 4 DBH bitarteko irakaskuntza eta Hezkuntza Berezia eskaintzen ditu. Izaera publikoa du, gainera, eta hainbat eredu hartzen ditu: A eredia, D eredia, G eredia eta A-G programa eleanitza. Eredu horietaz gain, aurretik aipatutako Hezkuntza Bereziko bi programa hauek egiteko aukera ematen du: Curriculum Bereziko Unitatea (CBU) eta Ikaskuntza eta Errendimendua Hobetzeko Programa (IEHP). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lau ikasturteak eskaintzen dituen ikastetxea denez, batxilergoa beste zentru batean egin beharra dute ikasleek, eta horregatik, beste ikastetxe bati lotuta egon behar du, legeak, 25/1997 Foru Dekretuak, hala aginduta. Gure ikastetxearen kasuan, batxilergoa Txantrea auzoko D ereduko Eunate ikastetxean, edo A-G ereduko Irubide ikastetxean egin behar izaten dute nahi duten ikasleek.

Lan hau garatzeko baliatu den *Practicum II* eskola praktikaldia 2020/2021 ikasturtean egin zen, martxoaren 15tik maiatzaren 7ra bitarte, hain justu ikastetxean 2. ebaluaketaren amaierarekin bat egin zuen; horregatik, ebaluazio batetik besterako transizio garaian txertatu zen lan honen proposamen didaktikoa, azterketak eginak eta urrango gai berriei heldu aurreko tarte hartan. D ereduko DBHko 1. mailan oinarritu zen bai praktikaldia, baita unitate didaktikoa ere, maila osatzen duten hiru ikasgeletan, 1D, 1E eta 1F-n. Osotara, 12 eta 14 urte arteko 68 ikaslerekin lan egin ahal izan genuen.

Aniztasun handiko klaseak dira, haien artean 13 ikasle baitaude nolabaiteko Curriculum egokitzapenak dituztenak, bai diagnostiko ofizialak dituztelako, baita ikasturtean zehar arazo akademikoak izan eta irakasle taldeak hala erabaki duelako.

## **2.3. Metodologia eta baliabideak**

### **2.3.1. Metodologia**

Bi alderdi nagusi hartu dira aintzat unitatea diseinatzeko: ikasle kopurua bata, eta aniztasuna bestea. Horregatik, honako neurriak hartu dira: ikasleak taldeka banatzea eta ariketa osagarriak prestatzea. Izan ere, bertsolari heldu batek, batz bestea, 20 segundu eta minutu baten artean eman dezake pentsatzen (Garzia et al. 2001), eta beraz, aurreikusi dugu, taldeka ordeztu ikasleek banaka lan egingo balute, ikasle bakoitzak pentsatzeko minutu bat behar izanez gero, 24 ikasleko klase batean, 50 minutu irauten dituen saio batean 24 minutu erabiliko liratezkeela ariketa bakarria egiteko. Hori ezustekoak, azalpenak eta bestelako denbora tarteak kontatu gabe.

Bestalde, ikasle guztien parte hartzea bilatzen denez, taldean irakasleak zuzenean dinamizatu behar izan gabe, lan egiteko aukera dutela uste dugu. Honetaz gain, taldekideek elkarri lagun diezaiokete, aniztasunari erantzuna emanez. Taldearen babesak ere jende aurrean hitz egin edo kantatzeko lotsa apaldu, eta huts egiteari beldurra gainditzeko balio dezake. Azkenik, taldeek izan ditzaketen erritmo ezberdinak errespetatzeko, ariketa osagarriak prestatuko dira, batzuek lehenago buka dezaketela kontuan izan dugulako, eta ariketa hauek unitate didaktikoan halaxe izenpetu ditugu: ariketa osagarriak.

Ikasgelan ikasle kopuru altua dagoela ikusita, taldeka lan egiteaz gain, azalpen teorikoak modu dinamikoan ematea bilatu dugu, horretarako Bertsobot deituriko dinamika sortuz. Kartulinaz eginiko euskarrietan emango da azalpena, ikasleek uki eta manipula dezaten, teoria modu fisiko eta plastikoago baten bitartez gidatuz. Ikasle batzuek entzumenaren bidez ulertzen dituzte azalpenak, beste batzuek ikusmenaren bidez, eta era honetan, Bertsobot-az, kontzeptuak bide kinestesikoagoaz barneratzen dituztenengana ere iristea bilatu dugu.

### **2.3.2. Baliabideak**

Proposatuko diegun ariketa bakoitzeko, *bertsoa.eus* eta arbela digitala baliatuz, bertsolariek egindako ahapaldien adibideak eman ditugu, ariketek zertan datzaten hobeki ulertzeko. Adibidez, “puntuari erantzun” ariketa egin beharko balute, bertso-saio batean bi bertsolarik “puntuari erantzun” ariketa batean egindako jarduna

erakutsiko genieke. Haiek eredutzat hartzeaz gain, gogoeta eta analisisa egiteko balioko digute, ikusitako ahapaldiaren inguruko galderei erantzun beharko baitiete.

Aipatutako euskarri digitalaz gain, jardueren zati handiena paperean oinarrituko da, hau da, propio diseinatutako fitxetan, edo bestela, bat-bateko ahozko testuen sorreran, eta horiek ikaskideek koadernoan transkribatuko dituzte. Unitate didaktikoak badu atal bat kartulina eta orri zuriak beharrezkoak izango dituen, gainera.

#### **2.4. Unitate didaktikoaren periodizazioa**

DBHko 1. mailan egingo den unitate didaktikoa da jarraian deskribatuko dugun hau, 50 minutu iraungo duten 8 saiotan zehar banatua. Bertsolaritzak eskaintzen dituen tresna eta aukerak baliatuz, ikasleek komunikatzeko gaitasuna landuko dute. Lehenbizi, sarrera txiki baten ostean, bertsolaritzaren alor teknikoan murgilduko ditugu, eta bigarrenik, ikasleek dituzten hizkuntza gaitasunak (ikasleek elkarrengandik desberdinak dituztela, klaseko aniztasuna, aintzat izanik) eta ikasitako bertsolaritza teknikak praktikara eramango dituzte, ahozko testuak sortzeko.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 24/2015 Foru Dekretuak ahozko komunikazioaz honakoa dio: <<xedea da ikasleak behar diren abileziak eskuratuz joan daitezela beren ideiak zehaztasunez komunikatzeko, egoera komunikatibo baten arabera gero eta landuagoak diren diskurtsoak egiteko eta aktiboki entzuteko, gainerakoen ideiak ongi interpretatuz>> (24/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa, 122. or.). Eta hau da, hain zuzen, bertsolaritzaren bitartez sortzen diren alegiazko testuinguruetan gertatzea nahi duguna, ikasleei egoera komunikatiboak aurkeztuz horiei erantzuteko modu aktiboan entzun behar baitute, eta erantzuna bera egituratu eta prestatzeko gogoeta egin.

##### **2.4.1. Unitate didaktikoaren antolaketa**

Hiru zati nagusitan banatu dugu unitate didaktikoa, 6. taulan ikus daitekeen bezala:

|        |  |
|--------|--|
| 3 saio | Bertsolaritzaren mekanika                |
| 5 saio | Ahozko testuen hausnarketa eta ekoizpena |



Jarraian, sortu dugun ataletako bakoitza sakontasun handiagoz deskribatuko dugu, eman diegun izena izenburu gisa jarriz:

#### **2.4.1.1. Bertsolaritzaren mekanika**

Aurre-ezagutzak aktibatzeke saio bat lehenbizi, eta gero bi saio eskainiko dizkiogu bertsolaritzako Neurria, errima eta doinuak lantzeari, horien inguruko gutxieneko ezagutza bat beharrezkoa baita bat-batean sortzeari ekiteko. Dena den, zati teoriko hau modu dinamiko eta atseginean ematea da asmoa, eta horretarako, Bertsobot jarduera baliatuko dugu, ikasleen parte-hartzea eskatzen duen dinamika bat, ariketa txiki askorekin. Atal honetako azalpena talde osoak elkarrekin, eta ariketak bakarka eta idatziz egingen dira gehien bat.

Bertsobot jarduera alegoria batean oinarritzen da, izan ere, Bertsobot kartulinazko robot bat da, gizakien irudimena ez duena, baina agindu edo komandoak emanaz gero, gai da bertso bat osatzeko. Aginduak hain zuzen, neurri bat (8ko txikia, 8ko handia, koplak, habanera...) eta errima familia bat (MN, KPT, BGRD...) dira. Era honetan, bertsolaritzaren bi alderdi banatuko ditugu, batetik, teknika hutsa, robot batek egin zezakeena, matematiko eta zehatza, eta bestetik, gizakien adimen eta sentipenek eskaintzen dutena, hau da, ideia, mezua eta asmoa. Orain aurkeztu dugun atal honetan, beraz, Bertsobot-a baliatuz bertsolaritzaren oinarritzko hezurdura aurkeztuko diegu ikasleei, bertsoak sortzeko modua dirudiena baino sinpleagoa dela ikus dezaten. Eta segidan azalduko dugun atalean bigarren aspektu hori nagusituko da, ideien mundua, bertsoei zentzua eman eta mezu nagusi bat transmititzearena.

#### **2.4.1.2. Ahozko testuen hausnarketa eta ekoizpena**

Curriculumeko aipu honetan oinarritu dugu bigarren atal honen egituraketa:

Hausnarketa metalinguistikoa hitzezko jardueran eta maila guztietan sartuta dago: diskurtso, testu eta perpaus mailetan; eta ahozko eta idatzizko hizkuntzaren ikaskuntza prozesuetan, ekoizpen fase desberdinen bidez: planifikazioa,

testualizazioa eta berrikuspena. Horrek ikasleei beren hizkuntza bizitzan zehar modu aktibo eta autonomoan ezagutzeko behar diren mekanismoak eskainiko dizkie (24/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa, 122. or.).

Planifikazio, testualizazio eta berrikuspen faseetan banatuko ditugu ikasleen ekoizpenak, baina honen aurretik hausnarketa ariketa bat proposatuko diegu. Atal honen bost saioek, beraz, egitura bera izanen dute.

- 1) Ariketaren azalpena: saio bakoitza oinarritzat hartuko duen bertso-ariketaren azalpen laburra.
- 2) Ahapaldia pantailan ikusi. *Bertsoa.eus*: ariketa hura erakusten duen benetako ahapaldi bat erakutsiko diegu, eta osorik ikusi ostean, gertatu den alegiazko komunikazio egoera horren inguruko ulermen galderak banatuko dizkiegu, taldeka erantzungo dituztenak.
- 3) Galderei erantzun. Klase guztietan, ahapaldi ezberdinak izanda ere, galdera berberei erantzun beharko diete, era honetan lehenbiziko klasetik azken klasera arteko tartean jada jakingo dute zer bilatu bideoetan, honako galdera hauek hain zuzen:
  - Zenbat bertsolarik abestu dute?
  - Zein zen gaia? Zure hitzez azaldu.
  - Zein izan da abestu duten bertso bakoitzaren bukaera?
  - Eta bertso bakoitzean helarazi nahi zen mezu nagusia?
  - Zein gustatu zaizu gehien?
- 4) Gaia eman: mahai bakoitzari gai bana emango diogu ariketa horrekin bat datorrena.
- 5) Taldean planifikatu: Planifikazio fasea.
- 6) Prest daudenean klasekideen aurrean kantatu: Testualizazio fasea.
- 7) Taldeko hausnarketa. Egindakoa berrikusteko honako galderei erantzun, hauek ere berberak izanen direnak saio guztietan:
  - Denok berdin parte hartu dugu?
  - Gaia ongi ulertu dugu?
  - Elkarri entzun diogu? Eta beraz, elkarri erantzun?
  - Zer izan da zailena? Zer errezena?

### 2.4.1.3. Benetako bertso-saio baten antolaketa

Nafarroako Bertsozale Elkartek, atal teorikoan azaldu bezala, baliabideak eskaintzen ditu bertso-saioak antola daitezen, eta horregatik, Euskara eta Literatura irakasleak bertso-saio bat antola dezake. Zuzendaritzarekin adostu eta haien oniritzia jaso, eta Nafarroako Bertsozale Elkartearekin harremanetan jarri beharra dago. Irakasleak izango dira, unitate didaktikoko atal honetan, bertso-saioaren egitura eta gaiak sortu beharko dituztenak. Klasean landutakoa isladatzeko aukera izango da. Gainera, errealitatearekin lotura egin ahalko dute.

### 2.4.2. Jarduerak

#### 1. SAIOA: Sarrera

- **Helburua:** aurre-ezagutzak piztu, bereziki ezagutzen dituzten doinuak gogora ekartzea interesatzen zaigu. Bestalde, unitate didaktikoa aurkeztuko diegu, eta egin beharko dituzten jarduera guztien berri eman.
- **50 minutu.**

#### Hasieran galderak:

- 1) Iazko ikasturtean: Iruñeko ikastetxe publiko gehienetan bezalaxe, haiek ere eman izango dute bertsolaritza ikastaroa LHko 5. eta 6. mailatan, eta beraz, haien irakaslea nor izan zen galdetuko diegu: Saioa Alkaiza, Xabier Terreros, Josu Sanjurjo... Izan al ziren?
- 2) Zer gogoratzen duten hobekien esateko eskatuko diegu, eta ideiak arbelean idatzi.
- 3) Inoiz bertsorik egin duten galdetuko diegu, zeinek bai eta zeinek ez, eta zergatik. Aurreikusi ditzakegun zenbait erantzun lotsa, gogoa, motibazioa, denbora... dira.
- 4) Zer doinu gogoratzen duten ikusten saiatuko gara, eta badaezpada, honako bertsoen transkripzioa banatu eta hauek berrikasi edo ikasiko ditugu. Usadiozko doinu herrikoiak (Garzia et al. 2001) hautatu ditugu irakasleak erraz topa ditzan, aukeraketan askatasuna duen arren:
  - Koplak: gure proposamena, "Ama begira zazu" edo "Ikusi nuenean"
  - 8ko txikiak: "Gizon arruntaren koplak" edo "Kantatzera nijoa"

#### Ariketa osagarriak:

1) Mintzola ahozko lantegia fundazioak eskaintzen dituen sareko baliabideak aprobetxatuz, inprobisazioaz hitz egingo dugu, eta mundu osoan zehar egiten dela erakutsi<sup>2</sup>:

- Kubako repentistak: *Bertsoa.eus* webgunean dagoen *Julio Soto eta Yoslay Garcia. Maitasuna*. Bideo artxiboa (*Bertsoa.eus*<sup>3</sup> 2016) ikusi.
- Mexikoko inprobisatzaileak: *Bertsoa.eus* webgunean dagoen *Julio Soto eta Alondras Huastecas taldea*. Bideo artxiboa (*Bertsoa.eus* 2016) ikusi.
- Rap oilar borrokak: *Bertsoa.eus* webgunean dagoen *Librean. Rapeatzailea ere badator*. Bideo artxiboa (*Bertsoa.eus* 2020) ikusi.

7. Taula: Sarrera

## 2. SAIOA: Bertsobot-a

- **Helburua:** bertsolaritzaren neurria eta errima kontzeptuak ulertzea. Silabak zenbatu eta hitzak bukaeraren arabera sailkatu.
- **50 minutu.**

### Ariketak:

- 1) **Bertsobot-a:** irakasleak kartazal batean hitz andana izango du silaba kopuruaren arabera antolatuak (1, 2, 3, 4 eta 5), eta zentzu zehatzik gabeak. Zentzua ez da Bertsobot-ari axola zaion ezer, matematikak baino ez baititu behar bertso bat osatzeko. Beste kartazal batean OINAK izanen ditugu, bertan, irakasleak hitzak errima familiaka sailkatuko ditu NM, KPT, L, BGRD, STSXTXZTZ eta RR. Gauzak horrela, irakasleak ikasleei ezagutzen duten neurri bat esateko eskatuko die, demagun (eta seguruena) 8ko txikia. Bada irakasleak 8 lerro marraztuko ditu arbelean, eta bikoitietan borobila. Gero, 7/6/7/6/7/6... silaba kopurua lerro bakoitzeko. Bertsobot-ari zer neurri beharko duen agindu ostean, lehenbiziko gauza ikasleei errima familia bat aukera dezaten eskatu eta bertatik behar adina oin kokatuko ditu ausaz (zortzikoan 4, hamarrekoan 5...). Behin oinak zehaztuta,

<sup>2</sup> Mintzola-k, Kulturartearen atalaren bidez, bertsolaritza mundu mailan ezagutarazi eta Euskal Herrian munduko beste kantu inprobisatuen berri ematea du helburu, kantu inprobisatuen arteko elkartrukea sustatu eta euskara munduko plazara ateraz. Horretarako nazioarteko topaketak antolatzen ditu eta, era berean, nazioartean besteek antolatutakoetan ere parte hartzen du. Harreman sare horiek bide ematen dute Kulturartearen Mapa garatzeko, nazioarteko kantu inprobisatuen argazkia eskaintzen duen datu-basea.

<sup>3</sup> Bertsoa.eus webgunearen izena eta helbidea berdina dira.

Bertsobot-ak gehiketa egiteari ekingo dio, hau da, irakasleak ikasleei silaba kopuru jakina duten hitz multzoen artean (1,2,3,4 eta 5) batuketa egin dezaten eskatuko die, eta era honetan, 7 silabako lerro batean haiek hautatuko dute 4+1+2 edo 1+1+5 edo 3+2+2 edo beste edozein aukera egitea. Betiere lerro bikoitietan jada kokatu den hitzaren silaba kopurua aintzat hartuz. Irakasleak dagokien lerroan silaba horiek dituzten hitzak jarriko ditu hitza estaliz, bukaeran, egindako batuketak dituenak direla, hitzei buelta eman eta hortxe izanen dugu bertsoa egina. Azkenik, doinua hautatu beharko dugu denon artean. Jada ezagutuko dituzten 8ko txikiko doinu asko daude: “Maritxu nora zoaz”, “Orioko balearena”, “Triste bizi naiz eta”, “Mila kilo zorion (Xarmangarria zira)”, edo “*Si te ha pillau la vaca*”...

- Argi utzi behar zaie bertsoak ez duela zentzurik izan behar, hitzak silaba kopuruaren arabera, edo bere bukaeraren arabera sailkatu baino ez dela egin beharrik.

**2) Haien txanda:** arbelean egindako gauza bera egin beharko dute fitxa batean beren kabuz. Denetariko hitzak dituen zerrenda bat emango diegu, eta silaba kopuruaren arabera sailkatu beharko dituzte. Gero, beste hitz multzo bat errimaren arabera ere sailkatu beharko dute. Bi sailkapenak taula banatan jarri ostean, zentzurik ez duen beste bertso bat osatu beharko dute, eta bukatu ahala, ezagutzen duten doinu batean abestu.

**3) Goiz bukatu dutenentzat: Txikitik handira, handitik txikira:** Neurri batean dauden hainbat bertso beste neurri batera aldatu, mezua galdu gabe.

Eredua:

|  |  |
|--|--|
| <p>Pasa 8ko txikiko bertso hau 8ko handira mezua aldatu gabe:</p> <p style="text-align: center;">Negua ia dago<br/>bere azken mugan<br/>eta festa giroa<br/>zabaldu da gugan<br/>inauteriak datoz<br/>eta berriz dudan<br/>ea mozorro on bat<br/>aukeratzen dudan.</p> | <p style="text-align: center;">Jada negua nola dagoen<br/>ia bukatzeko mugan<br/>Festa egiteko gogo bizia<br/>zabaltzen ari da gugan<br/>Zeren badatoz inauteriak<br/>eta berriz gaude dudan<br/>Ea mozorro elegante bat<br/>aukeratzen ahal dudan</p> |
|--|--|

8. Taula: Bertsobot-a

### 3. SAIOA: Bertso bot-a 2.0

- **Helburua:** aurreko klasean landutako kontzeptuak barneratzea.
- **50 minutu.**

#### Ariketak:

- 1) Errimatzen duten hitzen zerrenda:** Elkarri pilota bat jaurti ahala, errimatzen duten hitzak esan beharko dituzte ikasleek txandaka, irakasleak arbelean aipatutakoak idatzi bitartean. Zer esan jakin gabe geratzen dena eliminatu egingen da. Era honetan, oharkabean, oin zerrendak osatuko dituzte, gero koadernoan arbeletik kopiatuko dituztenak, hurrengo saioetan baliagarriak izango baitzaizkie.
- 2) Potokumeak:** Bertso baten oinak asmatzean datza, soilik lehenengo puntuko oina jakinik, eta hortik errima eratorriz. Idatzitako bertso batenak izan litezke, edota bertso bat inprobisatuz, eta entzuleak dira oinak asmatu beharko lituzketenak. Kasu honetan, idatzitako bertsoen oinak asmatu beharko dituzte idatziz, ulermen maila errezekoak direla bermatzeko.

Eredua:

|  |   |
|--|---|
| GAIA: Lizarrarako autobusean lokartu, eta Madrilen esnatu zara.<br>Begiak ireki ta<br>Estación Atocha<br>Ingurua egiten<br>zait oso ....<br>Bi segundu hauetan<br>hautsi zait ...<br>Ohianaren erdian<br>punki ile-...<br>Gutxienez Madril da<br>ta ez ... | GAIA: Norekin joan ez zenuenez, amonarekin joan zara zinemara.<br>Marvelen film berria<br>badago zineman<br>ikustera joan nahi<br>baina inor ez ...<br>Beraz amak esan dit<br>amona ...<br>Lagunen orde z bera<br>niretzat ...<br>Gure amona baita<br>nire Wonder ... |
|--|---|

- 3) Oinak emanda:** Ikasleei oinak baino ez dizkiegu emango, haiek bertsoa osa dezaten.

Eredua:

|   |   |
|---|---|
| GAIA: Etxetik atera, eta auzokoaren txakurrarekin egin duzu topo. | GAIA: Inork espero ez zuen arren, patioan futbol partidako pitxitxia izan |
|---|---|

OINAK: txakurra, beldurra, muturra, egurra

zara.

OINAK: gola, futbola, eskola, inola

**4) Ariketa osagarriak: Bukaera emanda:** Normalean neurri Handian, bukaerako puntua aldez aurretik eman eta ikasleek osatu beharko dute gainontzeko bertsoa.

Eredua:

GAIA: Azterketa garaian zaude, eta gauzak ez dira espero zenuen bezain ongi aterata.

BUKAERAKO PUNTUA: Lehentxeago ikasten jarri / beharko naiz hurrengoan

GAIA: Denak jarri dira zure lagun minaren aurka, zuk ordea bere ondoan mantendu zara.

BUKAERAKO PUNTUA: Nire laguna jarraituko dut / hemendik infinitora

9. Taula: Bertsobot-a 2.0

#### 4. SAIOA: Pertsonaia asmatu.

- **Helburua:** ahozo testu bat entzun, ulertu eta ekoiztea
- **50 minutu.**

- 1) Ariketaren azalpena: Galde-erantzun moduan, batek besteari gaijartzaileak emandako pertsonaia bat asmatzeko pistak eman beharko dizkio. Adibidez: Shrek, Messi, Homer Simpson, Kim Kardashian...
- 2) Ahapaldia pantailan ikusi: *Ander Perez-Irati Majuelo. Pertsonaia Izkutua* izeneko bideo artxiboa (Bertsoa.eus 2018).
- 3) Galderei erantzun.
- 4) Gaia eman: mahai bakoitzari gai bana emango diogu ariketa honekin bat datorrena.
- 5) Taldean planifikatu.
- 6) Prest daudenean klasekideen aurrean kantatu.
- 7) Taldeko hausnarketa.

10. Taula: Pertsonaia asmatu

#### 5. SAIOA: Habanera.

- **Helburua:** ahozo testu bat entzun, ulertu eta ekoiztea.

- **50 minutu.**

- 1) Ariketaren azalpena: Gaijartzaileak oinak emango dizkio bertsolariak kantatu ahala, puntuaren erdian edo bukaeran.

Eredua:

|  |  |
|--|--|
| GAIA: Port Aventura zoazen lehenengo aldia da<br>OINAK: Bertan / neukan / Dragon Kan / ilaran / hegan / neraman / bat-batean / bueltan | GAIA: Eguna elurretan pasa ondoren, hotz-hotzak, etxera sartu berri zara.<br>OINAK: Izabara / salda / malda / mara-mara / zirrara / txanda / erara / izan da |
|--|--|

- 2) Ahapaldia pantailan ikusi. *Unai Agirre eta Maialen Lujanbio. Habanera, batak besteari oinak emanda* izeneko bideo artxiboa (Bertsoa.eus 2018).
- 3) Galderei erantzun.
- 4) Gaia eman: mahai bakoitzari gai bana emango diogu ariketa honekin bat datorrena.
- 5) Taldean planifikatu.
- 6) Prest daudenean klasekideen aurrean kantatu.
- 7) Taldeko hausnarketa.

11. Taula: Habanera

## 6. SAIOA: Errima aldatu gabe ahalik eta kopla gehien osatu.

- **Helburua:** ahozo testu bat entzun, ulertu eta ekoiztea.
- **50 minutu.**

- 1) Ariketaren azalpena: bertsolarietako bakoitzari oin bana eman, eta oin horren errima mantenduz koplak kantatzen jarraitu, poto egin arte. Gehien irauten duena irabazle.
- 2) Ahapaldia pantailan ikusi. *Youtube.com* webgunean dagoen *2017ko Putzuzuloko kopla txapelketa* bideo artxiboko 2:09:27 orduan (Arraio irratia 2017).
- 3) Galderei erantzun.
- 4) Gaia eman: mahai bakoitzari gai bana emango diogu ariketa honekin bat datorrena.
- 5) Taldean planifikatu.
- 6) Prest daudenean klasekideen aurrean kantatu.
- 7) Taldeko hausnarketa.

12. Taula: Errima aldatu gabe



## 7. SAIOA: Aurrekoak atzekoei.

- **Helburua:** ahozo testu bat entzun, ulertu eta ekoiztea.
- **50 minutu.**

- 1) Ariketaren azalpena: gaiak taldeko bertsolari bat protagonista jartzen du, eta hark bere kideei bertso bana eskaini beharko die gai horri helduz, eta besteek erantzun.

Eredua:

|   |
|---|
| GAIA: Zu A, super-heroiei buruzko filme bat egin behar duen zuzendaria zara, zure atzekoak aktoreak, zer paper egin beharko luke bakoitzak? |
|---|

|   |
|---|
| GAIA: A, bizitza osasuntsuaren guru bat zara, zer aholku emango zenieke atzeko bakoitzari haien bizimodua hobetu dezaten? |
|---|

- 2) Ahapaldia pantailan ikusi. *Maddalenek ezizenak jarrijo dizkie atzekoei* bideo artxiboa (Bertsoa.eus 2021).
- 3) Galderei erantzun.
- 4) Gaia eman: mahai bakoitzari gai bana emango diogu ariketa honekin bat datorrena.
- 5) Taldean planifikatu.
- 6) Prest daudenean klasekideen aurrean kantatu.
- 7) Taldeko hausnarketa.

13. Taula: Aurrekoak atzekoei

## 8. SAIOA: Segidilla.

- **Helburua:** ahozo testu bat entzun, ulertu eta ekoiztea.
- **50 minutu.**

- 1) Ariketaren azalpena: Ofizioka aritzea bezala da, bi bertsolarik gai bati buruz kantatuz, baina bertso kopurua zehaztu ordez, denbora bat emango zaie, eta tarte horretan segidilla doinuan kantatzen eman beharko dute etengabe.

Eredua:

|   |
|---|
| GAIA: A gidatzen ikasten ari den ikaslea, B irakaslea. Une honetan A gidari, uste baino okerrago doa dena |
|---|

|  |
|--|
| GAIA: Biek klaseko talde-lan bat aurkezteko ordua iritsi da, ez bata ez besteak, ez duzue aurkezpena prestatu. |
|--|

- 2) Ahapaldia pantailan ikusi. *Saioa Alkaiza eta Aimar Karrika. Segidilla* bideo artxiboa

(Bertsoa.eus 2018).

- 3) Galderei erantzun.
- 4) Gaia eman: mahai bakoitzari gai bana emango diogu ariketa honekin bat datorrena.
- 5) Taldean planifikatu.
- 6) Prest daudenean klasekideen aurrean kantatu.
- 7) Taldeko hausnarketa.

14. Taula: Segidilla

### 9. SAIOA: Bertso saio baten antolaketa.

- **Helburua:** unitate didaktikoan zehar egindakoaren inguruko gogoeta sustatzea.
- **50 minutu.**

#### Ariketak:

- 1) Gehien gustatu zaien ariketa hautatu, eta zergatia azaldu beharko dute.
- 2) Talde bakoitzak ariketa bana hautatu eta gaia prestatu beharko dute.
- 3) Funtzionatuko luketela ikusteko, simulakroa egingo dugu, hau da, talde bakoitzak prestatutakoa ondoko taldeari pasa, eta hauek bertsolariarena egin beharko dute.
- 4) Ariketa eta gaiaren diseinuak funtzionatu duen erabakiko dugu denon artean, eta hala ez bada, zer hobetuko genukeen.

15. Taula: Bertso-saio bat antolatu

### 10. SAIOA: Bertso saio baten antolaketa 2.0.

- **Helburua:** aurreko saioan abiatutakoa bukatu eta azken ekoizpena aurreikustea.
- **50 minutu.**

#### Ariketak:

- 1) Bertso saioa prestatzen jarraitu
- 2) Auto-ebaluazio errubrika bete
- 3) Bertso saioari begira rolak banatu:
  - Gaijartzaileak.

- Saioaren kronika egingo dutenak.
- Bertsolariei harrera egingo dutenak.
- Aulkiak jarriko dituztenak.
- Bertsolariei ura jartzeko arduraduna.
- Argazkilariak.

16. Taula: Bertso-saioa prestatzen bukatu

## 2.5. Praktikan topatutako baldintzak

Honako unitate didaktikoa Iñaki Ochoa de Olza BHI ikastetxean gauzatzea zen asmoa, 2021eko martxoaren 15tik maiatzaren 7ra bitarteko praktikaldian, eta normala den bezala, errealitatera egokitu behar izan genuen. Hauek izan ziren egoerak eta tutore zen irakasleak ezarri zizkugun baldintzak:

- **Denbora murriztu:** 8-10 saioen ordean, 2 saio eta erdiko jarduera izan beharko zuen.
- **Migrazioaren gaia landu:** bertsolaritzaren bidez lan egin bai, eta ahozko komunikazioa lehenetsi bai, baina, migrazioaren gaia jorrazteko helburua txertatu behar izan genion. Helburua, beraz, ahozotasuna lantzea bera baino, gai zehatz honekiko kontzientzia garatzea izan zen, eta ahozotasuna tresna izatera igaro.
- **Covid19:** metodologia kooperatiboa bertan behera utzi behar izan dute aurretik, eta beraz, ikasgelako lana modu indibidualean edo talde osoak elkarrekin egin behar izaten dute.

Unitate didaktikoa moldatu behar izan genuen, beraz, eta errealitatean praktikara eramandakoa, ezberdin samarra izan zen arren, arestian aurkeztutakoaren muina eta printzipioak mantendu ahal izan genituen. Eranskinak atalean txertatu ditut (ikusi I eta II eranskinak), bai tutore izandako irakasleak bere programazioan sartu zuen gure bukaerako proposamen didaktikoa, baita ikasleei banatutako fitxak ere.

## 3. EMAITZAK

Hasierako proposamenetik bukaerakora egokitzapen ugari egin genituen arren, zer aztertu ugari izan genuen. Jarraian ahalik eta modu objektiboenean deskribatuko ditut behatu ahal izan genituen emaitzak, gero, ondorioak atalean, bakoitzaren

ordena bera mantenduz, azalpen bana proposatzen saiatu, ondorio nagusiekin batera:

### **3.1. Bertsolaritza lantzeak hitza hartzea erraztu**

Bigarren saioan bat-batean eta kantuan aritu ondoren, ohartu ginen hirugarren saioan, ikasleek euren iritzia hitzez konpartitzeko txanda iritsi zenean, klase normaletan baino parte-hartze handiaga egon zela. Euskara eta Literatura irakasleek hala baieztatuta, aurreko klaseetan isilxeago egoteko joera zuten zenbait ikaslek ere eskua altxatu eta haien ideiak elkarbanatu zituzten.

### **3.2. Migrazioari buruzko gogoeta sakonak**

Gaiak hala eskatuta, konplexuak ziren paperetatik sortzea egokitu zitzaizen taldeei, eta hala ere heldutasun handia izan zuten. Errefuxiatuen krisiaren aurrean Europari berdintasuna eskatzea; hemen jaio diren seme-alaben ikuspegitik, etorkin izandako gurasoei haiengatik egindako esfortzu eta sakrifizioak eskertzea; xenofobia eta aurreiritziek egunerokoan eragiten duten kaltea... Ideia hauen inguruan modu autonomoan gogoeta egin eta gero, bertso banatan adierazi zituzten. Egindako lanaz harro zeudela aitortu zuten gero, eta migrazioaren gaiarekiko interesa piztu zela. Pasabideetan beren gogoetez eztabaidan entzun genitzakeen.

### **3.3. Bertsoak prestatu bitartean, behintzat, euskaraz**

Erronka handia da ikasleek euskaraz egitea, beren artean hitz egiten ari direnean batez ere. Dena dela, bigarren eta hirugarren saioko zenbait jardueratan beren artean euskaraz hitz egin behar izan zuten, zer bertso eta nola egingo zuten planifikatzen ari ziren bitartean. Ez zen asko izan, baina zerbait bai.

### **3.4. Besteen errekonozimendua jaso**

Klasean bertso bat sortu eta kantatu zuten bakoitzean, ikaskideen txalo eta zoriona jaso zuten, kantatu zuena nor zen edo harekin zer harreman zuten inporta izan gabe. Gainera, unitate didaktikoa praktikara eraman eta astebetara, migrazioari buruzko antzerki bat ikustera joan ziren DBH 1eko A eta D ereduko ikasle guztiak, eta bukaeran, antzerkilariek ikasleei beren iritzia adierazteko oholtzara igotzeko proposamena egin zietenean, D ereduko lagun talde bat, irakasleek hala eskatu

gabe, klasean egindako bertsoetako bat kantatzera igo ziren oholtzara, bertan zeuden guztien txalo zaparrada jasoz ondoren.

### **3.5. Bertsolaritzarekiko interesa piztu**

Bost ikaslek bertso eskola sortzearen aldeko interesa erakutsi zuten, eta maiatzaren 8an Antsoainen antolatu zen bertso-saio bat ikustera ere agertu ziren.

### **3.6. Ezin ahozkoatasuna sakontasunean landu**

Tamalez, ezin izan genuen beren ahozko testuen ekoizpenaren garapena behatu, ez genuelako hasierako ekoizpen bat bukaerako batekin konparatzerik izan. Lehenengo aldia zen ahoz sortzeko aukera zutena, eta azkena ere bai. Oro har, azaleko lanketa bat baino ez zen izan, eta bertsolaritza bera eta migrazioaren gaia gailendu ziren.

### **3.7. Kantuan ari zenari errespetua**

Klasean irakasleak askotan egon behar izaten du ikasleak isil daitezten eskatzen. Ikasle bat kantuan hasi orduko, ordea, bere ikaskideak, salbuespenak salbuespen, isildu egin ziren. Denek arretaz entzuten ez bazuten ere, behintzat errespetua erakusten zuten.

### **3.8. Unitate didaktikoari aldaketak**

Proposamen didaktikoari egindako aldaketak egun batetik bestera egin behar izan nizekionez, ikasgelara eraman nuen proposamena ez zen hemen azaldutakoa bezain landua izan, eta beraz, eskolak eman bitartean hutsuneak edo akatsak aztertu ahal izan nituen.

## **4. ONDORIOAK**

Unitate didaktikoa praktikara eraman eta jasotako emaitzen inguruan gogoeta egin ostean, honako hauek dira aterata ditugun ondorioak. Egitura argi bat mantentze aldera, puntu bakoitzaren zenbakia bat dator emaitzak ataleko zenbakiekin, hau da, 4.1. puntua 3.1. puntuari lotuta dago, 4.2. puntua 3.2. puntuari, 4.3. puntua 3.3. puntuari eta abar.

#### **4.1. Huts egiteko beldurra gainditu**

Bertsolaritzarekin lehen kontaktuak nolabaiteko harridura edo deserosotasuna sorrarazten du, batez ere irakaslea bera kantatzen hasten bada. Baina lehenengo lotsaren muga hori gaindituz gero, ikasle batzuek lehenengo ariketan bertan, beste batzuek bigarrenean, edota azkenekoan ere, gero taldean sortzen den giroa konfiantza eta ia konplizitatezkoa izaten da. Gure praktika honetan hala izan zen; lotsatia zenak bere lagunaren begirada bilatu, eta kantuan egiteko indarra ematen zion. Ez genuen denbora nahikorik izan dinamika honetan lanean jarraitzeko, eta badira hainbat ikasle nahiko isilik egon zirenak. Oso modu positiboan balioetsi dut unitate didaktiko honen lehen urratsa irakasleak bertso bat abestu izana izatea, ikasleak sorginduta bezala utzi zituelako, bertsoari entzuten, eta urrengo ariketen tonua zehaztu zuelako.

#### **4.2. Enpatia landu eta hausnarketa egin**

Bertsolaritzak berenak ez diren lekuetan jartzera daramatza ikasleak. Hasieran, haien adinetik gertu zeuden gaiak erabiltzea zen asmoa, urtebetetze festak, sare sozialak, azterketak, gurasoak... Migrazioaren gaira egokitu izanak, ordea, erakutsi zidan adin tarte honetan, gaur egun, jada informazio handia darabiltela, eta iritzi kritiko garatu samarra dutela. Informazioaren aroan, sare sozial eta hedabideetan denetariko albiste, datu eta iritziak jartzen dituzte haien eskura, eta egiari zor, belaunaldi hau insensibilizatutzat jotzen dutenek, ikasle hauek erakutsitako sentikortasun eta heldutasunari begiratu besterik ez diote egin behar. Bertsolaritzak gai mardulez modu dinamiko eta parte-hartzailean hitz egin eta hausnartzeko aukera eman zigun. Artetxek oso ongi jasotzen du ideia hau: <<Bertsotan aritzea hausnarketa praktika bat ere baden neurrian, beraz, bertsolaritzan ari diren gazteek hausnarketarako gaitasunak ere lantzen dituzte>> (Artetxe 2019, 197. or.).

#### **4.3. Eremu euskaldun trinkoa**

Bertso munduaren ezaugarri nagusienetako bat horixe da; modu trinkoan euskaraz egiten den eremua dela, eta hori klase barrura eraman izana oso interesgarria izan da, sortzeko, ikasleek euskaraz hitz egitea eskatzen zuten jarduerak zirelako gehienak. Hala ere, ikasleak hain daude ohituta beren artean gaztelaniaz egitera, bestela egiteak eskemak apurtzen dizkiela. Dena den, bertso bat osatzea hain da ariketa intelektual zorrotza, nahitaez euskaraz egin behar dena, ikasleak

kontzentratuz gero euskaraz baino egiten ez dutela. Produktu jakin bat ekoitzi behar dutenez, ia oharkabeen, hara iristeko prozesua euskaraz egiten dute, nahiz eta gero segituan gaztelaniara itzuli. Horrelako sormen ariketak gure ikasgaien modu erregular batean txertatuko bagenu, beharbada hizkuntza ohitura berriak gara litzakete.

#### **4.4. Autoestimua lanketa**

Bertsolaritzak badu ezaugarri berezi bat, beste sorkuntza literarioek ez dutena, berehalako erantzunarena, alegia. Bertsolariak bere produktu artistikoa sortu eta unean jasotzen du *feedback*-a, normalean, gainera, positiboa izaten dena. Horrek sortzailearen autestimua garatzen laguntzen du, inprobisatzeak ematen duen beldurra gainditzeak segidan saria dakarrelako. Nafarroan bertso-mundua hain da txikia, pertsona batek oholtza gainera igo (edo gure kasuan arbelara atera) eta kantatzeko eman duen pausuak errekonozimendua jaso ohi duela. Saiatzen denari inguratzen zaizkionak bereziki zaleak izaten dira, eta bertsolaritzan aditu edo arituak, eta gai dira bestearen ikuspuntutik pausu hori ematea zeinen zaila izan daitekeen ulertzeko. Zale ugari dituen beste jarduera batekin konparatzearen, futbolak, adibidez, hainbeste jarraitzaile dituen, mundu horretan diardutenen arteko lehiakortasuna biziagoa da, postu gutxi dagoelako jokalaririk askorentzat.

#### **4.5. Eskolaz kanpoko jarduera gisa eraginkorragoa**

Eskolaz-kanpo, bertso-eskola, bertso-udaleku eta bertso-saioetan sortzen diren harremanak, sormen prozesuak eta emaitzak beti dira euskaraz, eta hori ikasgela barrura sartzen saiatu ginen. Erronka, ordea, ez da txikia, eta zaila izan zen alor akademikotik aldentzea, batez ere egokitutako unitate didaktiko honetan bertsolaritza bera bigarren plano batera pasatu, eta migrazioaren gaia lehenetsi genduelako. Eskolaz kanpoko bertso-eskolek gaztetxoek hizkuntza ohituretan duten eragin positiboa ikertu duten lan interesgarri batzuk daude (Artetxe 2018, Artetxe 2019, Zubiri et al. 2018), baina fenomeno hori hizkuntza gaitasuna garatzeak ez ezik, harreman sare euskalduna eta zaletasun euskalduna lortzearekin lotu izan dute, eta ikastetxe barruan hizkuntza gaitasunean baino ezin daiteke sakondu. Honekin ez dut esan nahi bertsolaritza irakaslearentzat tresna baliagarria ez denik, beste dimentsio bat faltako litzaiokeela baizik, eskolatik kanpora egin behar dena. Unitate didaktiko

txiki honetan hurbilpen bat izan genuen, bost ikaslek bi dimentsioen arteko zubi bat eraiki zutelako, egun batez bada ere. Ikusi beharko da denboran irauten duen.

#### **4.6. Urteko programazioa**

Nire unitate didaktikoari eginen niokeen kritika handiena horixe da, ez datorrela urteko programazio batekin bat, eta beraz, ikasleen lan dinamikarekin apurtu zuela. Ikasturte osoa eman zuten era batean lan egiten, eta bapatean, erabat desberdina zen jarduera segida bat egin behar izan zuten, eta horrek haiengan nahasmendua eragiteaz gain, unitate didaktikoari berari indarra kendu zion. Eraginkortasuna bilatze aldera, urteko programazio osoa estilo edo lan-ohitura bereko unitate didaktikoez osatu beharko litzateke, nolabaiteko jarraikortasuna lortzeko. Bestalde, urteko programazioaren baitan kokatzeak, denboraren kudeaketa egokia ahalbidetzen du, eta unitate didaktiko honek behar adina saio izango litzuzke, eta helburuak zurrinak eta argiak.

Ez dut ordea denbora faltaz kexatzean nire praktiketako irakaslearenganako esker onik ez dudarik ematea nahi. Praktiketako ikasleari bi saio eta erdi utzi izana zoragarria da, azterketa garaian gainera, eta asko eskertu nizkion niregan jarritako konfiantza eta eskaintako laguntza. Gainera, denak praktikan jarri ez bagenituen ere, 10 saioko unitate didaktiko bat oso luzea da, eta nahi adina denbora izan bagenu ere, ziurrenik laburtu beharko litzateke. Ahozko testuen hausnarketa eta ekoizpenetik bi saio kenduko nizkioke, eta bertso-saioa prestatu, eta auto-ebaluaziorako saio bakarra eman.

#### **4.7. Miresmena sorrarazten duen jarduera**

Aurretik aipatu bezala, bertso bat sortzeak eskatzen duen lan intelektuala oso handia da, eta ikusleak hori nabari du. Hargatik, inor inprobisatzen hastean, nahiz eta indiferentzia hutsagatik izan ere, ingurukoak isilarazten ditu. Ikasleak halako errespetuzko jarreretan ohitzea oso ona izan daiteke, normalean bertso-eskoletan trebatzen diren ikasleek erabateko errespetua erakusten ohi baitute hitz egiten edo kantatzen ari denarekiko. Izan ere, bertso-eskoletan, haurrak, nerabeak ala helduak izanda ere, oso ohikoa da minutu luzeak erabateko isiltasunean ematea, kantatu behar duenak pentsatu bitartean. Errespetua ikasten den bertutea den heinean, halako jarduerak lagun dezakete, printzipioz denak igaroko liratekeelako kantatzen



duenaren lekutik, eta ikusiko luketelako zeinen garrantzitsua den isiltasuna kontzentratzeko.

#### **4.8. Hutsak**

Nere buruak du akats handien arduraren ardura. Adibidez, bertsoak sortzeko ereduak emateko orduan, oharkabean fokoa klasea aztoratzeko joera zuten ikasleengan jarri nuen. 1F klasean izan zen hori, lehenengo saioan, eta ondoren, 1D eta 1E klaseetan lehenengo saioa ematea egokitu zitzaidanean, tutorearen aholkuei jarraiki, lider positiboagoak zirenei eman nien protagonismoa, eta klasea ez zen hainbeste aztoratu. Bestalde, jarduera batetik besterako lotura ez zen egokiena izan, tartean jarduera batzuk egin gabe utzi baintuen batzuetan, edo jarduera unean egokitu, eta horregatik, ikasgela bakoitzean praktikan jarritako unitate didaktikoa ez zen besteetan jarritakoaren berdina izan. Unitate didaktikoaren egokitzapena egiteko presa klase emateko moduan isladatu nuela iruditzen zait, orohar ez nuelako egonkortasuna mantendu. 1F-n ikasleei jarduerak egiteko denbora gutxiegi; 1E-n denbora gehiegi; 1D-n migrazioaren gaiari arreta handia eskaini eta bertsolaritzari txikia... Egindako unitatearen egokitzapenari egin beharreko kritika handiena, praktikan oinarrituz, ariketa txiki gehiegi egin nahi izana da. Uste dut hobe izango zela jarduera bakarra hautatu, eta hura sakontasunez landu izan banu. Pentsamolde hau nuen hasierako proposamena diseinatu genuenean, baina egokitzapena egitean, helburuak eta ariketak pilatu zitzaizkidan, eta sinplifikatu ordez, programazioa konplikatu nuen, ordena edo ardatz argi bat jarraitu gabe. Bideabar, aipatu beharra dut ere auto-ebaluaziorako aukera gehiago eskaini izana faltatu zitzaidala.

Azkenik, unitatearen ebaluazioa praktikatako tutorearekin batera egin nuela azaldu nahiko nuke, bere unitate didaktikoaren parte ere bazelako. Metodologia tradizionalak irakasleei erosotasun handia eskaintzen dietela ondorioztatu genuen, azterketako nota, lanen baten zuzenketa eta portaeraren balioespen orokor batek ikasle bakoitzari kalifikazio bat esleitzeko erreztasuna ematen baitie. Metodologia berritzaileagoetan ikasle bakoitzari arretaz ebaluazio sakon bat eskaini behar zaio, alderdi ugari aintzat hartuta, eta batzuetan errubrika korapilatsu bana bete beharra dago ikasle askorekin. Ikertzeke dago ebaluatze metodo eraginkor, aberasgarri eta eroso dena. Aintzat hartu behar da, bestalde, ebaluatze metodoa tokian tokiko

Euskara eta Literatura mintegiarekin bateratu behar dela, eta eranskinak III atalean dagoen errubrikak Curriculumeko ebaluazio estandarrak erabiltzen dituen arren, eta Iñaki Ochoa de Olza DBHI ikastetxeko 2020/2021 ikasturteko Euskara eta Literatura mintegiaren oniritzia jaso bazuen ere, beste ikastetxe batean erabiltzeko egokitu beharko litzatekeela.

#### **4.9. Ondorio nagusia**

Bertsolaritza, ahozkoasuna bera lantzeko baino, beste edozein gai ahoz lantzeko oso tresna erabilgarria dela egiaztatu dudala uste dut. Testu liburuarekiko menpekotasunarekin bukatzeko balio dezake, finean, ahozkoasuna lantzeko metodo pasibo eta tradizionalak ez dutelako balio. Argi dago ikasleak ez ditugula euskaraz komunikatzeko konpetentzian trebatzen ari, hori unitate didaktiko gehienetan helburutzat agertzen den arren. Bertsolaritza tresna alternatibo txiki bat da, antzerkia, bideoklipak, kamishibai-ak, komikia eta beste hainbat modalitate artistiko izan daitezkeen bezala. Gaur egun berritzaile izan ala ez hautu bat da, Curriculumak dirudiena baino askatasun handiagoa ematen digulako, eta etorkizunari begira, ildo berberetik jarraituko lukeen programazio oso bat diseinatu eta praktikara eraman nahiko nuke, bere argi eta bere ilunekin, baina testu liburuen babes eta erosotasunetik kanpo, eroriz ikasten delako zutik ibiltzen.

#### **BIBLIOGRAFIA**

Amonarriz, K. (2015). "Ahozkoasuna soziolinguistikaren behatokitik". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 96, 103-127.

Artetxe, M. (2018). "Hiztun berriak eta bertso-mundua. Legitimatuta a(ha)la auzitan jarri". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 109, 45-72.

Artetxe, M. (2019). *Ipar Euskal Herriko bertso-eskoletako gazteen hizkuntza ibilbideak*. Doktore Tesia, UPV-EHU

Arraio Irratia. (2017-12-28). *2017ko Putzuzuloko koplak txapelketa*. [Bideo artxiboa].  
Berreskuratua: <https://www.youtube.com/watch?v=DJloTj6jpH8>

Bertsoa.eus. (2016-07-16). *Julio Soto eta Soslay Garcia. Maitasuna*. [Bideo artxiboa].  
Berreskuratua: <https://bertsoa.eus/bertsoak/13397-julio-soto-eta-yoslay-garcia-maitasuna>

- Bertsoa.eus. (2016-07-16). *Julio Soto eta Alondras Huastecas taldea*. [Bideo artxiboa]. Berreskuratua: <https://bertsoa.eus/bertsoak/13393-julio-soto-eta-alondras-huastecas-taldea>
- Bertsoa.eus. (2020-03-04). *Librean. Rapeatzailea ere badator*. [Bideo artxiboa]. Berreskuratua: <https://bertsoa.eus/bertsoak/17724-librean-rapeatzaile-ere-badator>
- Bertsoa.eus. (2018-02-03). *Ander Perez-Irati Majuelo. Pertsonaia izkutua*. [Bideo artxiboa]. Berreskuratua: <https://bertsoa.eus/bertsoak/15136-ander-perez-irati-majuelo-pertsonaia-izkutu>  
[a](#)
- Bertsoa.eus. (2018-10-19). *Unai Agirre eta Maialen Lujanbio. Habanera, batak besteari oinak emanda*. [Bideo artxiboa]. Berreskuratua: <https://bertsoa.eus/bertsoak/15912-unai-iturriaga-eta-maialen-lujanbio-habanera-batak-besteari-oinak-emanda>
- Bertsoa.eus. (2021-03-06). *Maddalenek ezizenak jarriko dizkie atzekoei*. [Bideo artxiboa]. Berreskuratua: <https://bertsoa.eus/bertsoak/19137-maddalenek-ezizenak-jarriko-dizkie-atzekoei>  
[ei](#)
- Bertsoa.eus. (2018-02-17). *Saioa Alkaiza eta Aimar Karrika. Segidilla*. [Bideo artxiboa]. Berreskuratua: <https://bertsoa.eus/bertsoak/15189-saioa-alkaiza-eta-aimar-karrika-segidilla>
- Nafarroako Gobernua. (2020). Nafarroako datu Soziolinguistikoak, 2018. Iruña: Nafarroako Gobernua, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua.
- Mintzola ahozko lantegia. (d.e.). *Kulturartea*. [Kontsulta: 2021-05-31]. Berreskuratua: <https://www.mintzola.eus/eu/kulturartea/>
- Muñagorri, L. (2020-01-19). “Eskoletan adizkiak irakatsi beharrean, hobe genuke jolas modura irakastea”. *Berria*. [Kontsulta: 2021-04-11]. Berreskuratua: <https://www.berria.eus/paperekoa/1947/042/001/2020-01-19/eskoletan-adizkiak-irakatsi-beharrean-hobe-genuke-jolas-modura-irakastea.htm>
- Garzia, J. (2007) “Bertsolaritza in the School Curriculum”. *Oral Tradition*, 22/2, 69-76.
- Garzia, J., Sarasua, J., Egaña, A. (2001) *Bat-bateko bertsolaritza: gakoak eta azterbideak*. Donostia; Andoain: Bertsozale Elkarteak: Bertsolari liburuak.
- Iregi, A. (2021) “Iñaki Ochoa de Olza Ikastetxea Practicum II memoria”. Argitaratu gabea.

- Kasares, P. (2010). "20 urteko nafar euskaldun hori. Nafarroako euskararen egoera zenbait gazte euskaldunen bizipenetan". *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 76, 101-123.
- Nafarroako Gobernua. (2015). Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculuma (24/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa). NAO. 127. zk.
- Rekondo, A. (2020). "Nafarroako bertsolaritza egonkortze bidean". *Bertsozale elkarte gerora mugitzen aldizkaria*, 2020ko udaberria, 57, 56-59.
- Zubiri, H., Aierdi, X., eta Retortillo, A. (2018). *Kultura ez da bat-batekoa*. Bertsozaletasunaren Azterketa Soziologikoa. UPV/EHU.

## ERANSKINAK

### ERANSKINAK I: Unitatearen egokitzapena

| 1. Saioa  |  |
|-----------|--|
| 35 minutu | <p>1) Bertso batez aurkeztu: Ahozkotasuna bertsoen bitartez landuko dugula...</p> <p>2) Ziurrenik bertsolaritza eman zuten eskolan: Xabi Terreros, Josu Sanjurjo... Aurre-ezagutzak piztu (5 minutu gehienez)</p> <p>3) Bertsolaritzaren alde mekanikoa: NEURRIA eta ERRIMA</p> <p>4) Bertsobot-a: irakasleak kartazal batean hitz andana izango du silaba kopuruaren arabera antolatuak (1,2,3,4 eta 5), eta zentzu zehatzik gabeak. Zentzua ez da Bertsobot-ari axola zaion ezer, matematikak baino ez baititu behar bertso bat osatzeko. Beste kartazal batean OINAK izanen ditugu, bertan, irakasleak hitzak errima familiaka sailkatuko ditu NM, KPT, L, BGRD, STSXTXZTZ eta RR. Gauzak horrela, Irakasleak ikasleei ezagutzen duten neurri bat esateko eskatuko die, demagun (eta seguruenen) 8ko txikia. Bada irakasleak 8 lerro marraztuko ditu arbelean, eta bikoitietan borobila. Gero, 7/6/7/6/7/6... silaba kopurua lerro bakoitzeko. Bertsobot-ari zer neurri beharko duen agindu ostean, lehenbiziko gauza ikasleei errima familia bat aukera dezaten eskatzea da, eta bertatik behar adina oin kokatuko ditu auzaz (zortzikotan 4, hamarrekotan 5...). Behin oinak zehaztuta, Bertsobot-ak gehiketa egiteari ekingo dio, hau da, irakasleak ikasleei silaba kopuru jakina duten hitz multzoen artean (1,2,3,4 eta 5) batuketa egin dezaten eskatuko die, eta era honetan, 7 silabako lerro batean haiek hautatuko dute 4+1+2 edo 1+1+5 edo 3+2+2 edo beste edozein aukera egitea. Betiere lerro bikoitietan jada kokatu den hitzaren silaba kopurua aintzat hartuz. Irakasleak dagokien lerroan silaba horiek dituzten hitzak jarriko ditu hitza estaliz, bukaeran, egindako batuketak ditena direla, hitzei buelta eman eta hortxe izanen dugu bertsoa egina. Azkenik, doinua hautatu beharko dugu denon artean, jada ezagutuko dituzten 8ko txikiko doinu asko daude: Maritxu Nora Zoaz, Orioko Balearena, Triste Bizi Naiz Eta, Mila Kilo Zorion (Xarmangarria Zera), edo Si Te Ha Pillau La Vaca...</p> <p>a) Beraien txanda bera egiteko. EZ DU ZENTZURIK IZAN BEHAR, argi utzi.</p> <p>i) Fitxa batean, garunaren robot baten azpian, denetariko hitzak azalduko zaizkie, ia ia auzaz. Haiek horrela sailkatu beharko dituzte: silaba kopuruka, eta errima zehatz bat duten hitzak ere bilatu beharko dituzte bertan, adibidez, -ana eta -ama bukatzen direnak (irakasleak taula argi bat emango die).</p> <p>ii) Ondoren, fitxan bertan izango dituzten lerro batzuetan zentzurik ez duen bertsoa osatuko dute haiek.</p> <p>iii) Teoria laburra fitxan agertuko dena: NEURRIAK silaba kopurua eta oin kopurua zehazten ditu (OIN errimatzen duen hitz, normalean lerro bikoitietan doana). Bertsobot-ak silabak zenbatu eta errimen taldeak errespetatzen ditu.</p> <p>iv) Denbora balego baten batek berea kanta dezala.</p> |

|  |  |
|--|--|
|  | <p>5) Errimatzen duten hitzen zerrendak sortuko ditugu denok elkarrekin. Hiru/Lau</p> <p>6) Elkarri baloirik pasatzerik ez dagoenez (Covid) pistolero jolasa mahaitik eserita. Batak besteari hitz bat "tiro" eta besteak errimatzen duen beste batez erantzun. Gero, berak nahi duen hitza beste ikaskideren bati jaurtitzeko eskuan pistolaren keinua eginez.</p> <p>7) Denbora balego, potokumeak Saioa Alkaiza eta Irati Majuelok migrazioari buruz egin zuten ahapaldi inprobisatuarekin (irakasleak transkripzioa banatu).</p> |
|--|--|

|          |  |
|----------|--|
| 2. Saioa |  |
|----------|--|

|   |  |   |   |   |
|---|--|---|---|---|
| 50 minutu   | <p>1) Migrazioa gai gisa erabilia inprobisatu daitekeela erakutsiko diegu. Horretarako honako adibidea emanaz:</p> <p style="margin-left: 20px;">a) Amets Arzallusek 2009an EHko Bertsolari Txapelketako finalean egin zituen bakarkako 3 bertsoen transkripzioa.</p> <table border="1" style="width: 100%; margin: 10px 0;"> <tr> <td style="width: 33%; padding: 5px;"> Sortzean ginen bost anai<br/> inork ez zuen joan nahi<br/> neri esan zidaten ai "Hik balio dek hi joan hai!".<br/> Afrikan ezin genuen bizi<br/> eta Europa amesgai.<br/> Hara bi urte Euskal Herrian<br/> aukera hobe baten zai baina ez dakit zer den azala<br/> zer den begi zer den usai...<br/> Autobus hontan gogoratzen naiz pateran gentozen nornahi<br/> ai zeinen estu gentozen eta hemen tamalez zein lasai! </td> <td style="width: 33%; padding: 5px;"> Ni Mohamed naiz izenez<br/> ta lñaki ezizenez<br/> neure motxila gizez<br/> disco saltzaile naizenez<br/> autobus hontan nator goizero<br/> neure gogo neure senez<br/> baten bat neure ondoan ea jartzen den itxaropenez<br/> baina hemengoak azalez eta hitzez zuriak direnez<br/> bi urteotan ez dator inor<br/> ta hemen nago neure penez:<br/> autobus baten barruan goaz baina bide berean ez </td> <td style="width: 33%; padding: 5px;"> Ta bakardade sakona<br/> hik ez, ez nauk abandona<br/> Koranari jaramona ta irakurtzen dut Mahoma<br/> hark esaten dit "Segi aurrera hi baihaiz pertsona ona".<br/> Baina badoaz bi ejekutibo ta neskatxa baten gona<br/> zigarroa errez bizar ta guzti<br/> aurrera doa gizona baina hara hor zahar bat badator ta gerturatu da hona.<br/> Lehenengoa zu zera eta eskerrik asko amona! </td> </tr> </table> <p style="margin-left: 20px;">a) Dagokion bideoa jarriko diegu, bat-bateko ahapaldia ikus dezaten.</p> <p style="margin-left: 20px;">b) Idatzitakoa ulertzen saiatuko gara, horretarako, irakasleak galderak egin eta haiek erantzun dezatela, ahal dela, ikasle ezberdinek. Gaiarekin lotura duen. Bukaera bakoitzak bertsoa ongi laburbiltzen duten. Haiek gai hori entzunda zer erantzun izango luketen.</p> | Sortzean ginen bost anai<br>inork ez zuen joan nahi<br>neri esan zidaten ai "Hik balio dek hi joan hai!".<br>Afrikan ezin genuen bizi<br>eta Europa amesgai.<br>Hara bi urte Euskal Herrian<br>aukera hobe baten zai baina ez dakit zer den azala<br>zer den begi zer den usai...<br>Autobus hontan gogoratzen naiz pateran gentozen nornahi<br>ai zeinen estu gentozen eta hemen tamalez zein lasai! | Ni Mohamed naiz izenez<br>ta lñaki ezizenez<br>neure motxila gizez<br>disco saltzaile naizenez<br>autobus hontan nator goizero<br>neure gogo neure senez<br>baten bat neure ondoan ea jartzen den itxaropenez<br>baina hemengoak azalez eta hitzez zuriak direnez<br>bi urteotan ez dator inor<br>ta hemen nago neure penez:<br>autobus baten barruan goaz baina bide berean ez | Ta bakardade sakona<br>hik ez, ez nauk abandona<br>Koranari jaramona ta irakurtzen dut Mahoma<br>hark esaten dit "Segi aurrera hi baihaiz pertsona ona".<br>Baina badoaz bi ejekutibo ta neskatxa baten gona<br>zigarroa errez bizar ta guzti<br>aurrera doa gizona baina hara hor zahar bat badator ta gerturatu da hona.<br>Lehenengoa zu zera eta eskerrik asko amona! |
| Sortzean ginen bost anai<br>inork ez zuen joan nahi<br>neri esan zidaten ai "Hik balio dek hi joan hai!".<br>Afrikan ezin genuen bizi<br>eta Europa amesgai.<br>Hara bi urte Euskal Herrian<br>aukera hobe baten zai baina ez dakit zer den azala<br>zer den begi zer den usai...<br>Autobus hontan gogoratzen naiz pateran gentozen nornahi<br>ai zeinen estu gentozen eta hemen tamalez zein lasai! | Ni Mohamed naiz izenez<br>ta lñaki ezizenez<br>neure motxila gizez<br>disco saltzaile naizenez<br>autobus hontan nator goizero<br>neure gogo neure senez<br>baten bat neure ondoan ea jartzen den itxaropenez<br>baina hemengoak azalez eta hitzez zuriak direnez<br>bi urteotan ez dator inor<br>ta hemen nago neure penez:<br>autobus baten barruan goaz baina bide berean ez  | Ta bakardade sakona<br>hik ez, ez nauk abandona<br>Koranari jaramona ta irakurtzen dut Mahoma<br>hark esaten dit "Segi aurrera hi baihaiz pertsona ona".<br>Baina badoaz bi ejekutibo ta neskatxa baten gona<br>zigarroa errez bizar ta guzti<br>aurrera doa gizona baina hara hor zahar bat badator ta gerturatu da hona.<br>Lehenengoa zu zera eta eskerrik asko amona!                             |   |   |

|  |  |
|--|--|
|  | <p>c) Bestalde, ikasleei eskatuko die haien esaldi gustokoena topa dezaten, eta aurretik erantzun ez dutenei galdetu.</p> <p>d) Alor teknikoari ere erreparatuko diogu, eta horretarako, banatu zaien fitxan bertan irakasleak eskatuko dizkien aspektuak marrakatu/borobildu/idatzi beharko dituzte: zenbat errimatzen duten hitz edo oin, zein da errima, zer familiakoa (MN, L, RR, KPT, SZX, RR gogoraziko diegu, aurreko klaseko orrian luketen arren), lerro bakoitzeko dagoen silaba kopurua.</p> <p>e) Oraindik erantzun gabe geratzen direnen artean, bat-bateko saio honetaz duten iritzia galdetu.</p> <p>f) Azkenik, Amets Arzallusek idatzitako Miñean eleberriaz hitz egin liezaieke irakasleak.</p> <p>2) Ametsek halako bertso luzea bat-batean egitera iristeko eman zituen pausuak emango ditugu guk (hala adierazi ikasleei).</p> <p>a) GALDE ERANTZUNAK. Lehenbizikoa idatziz, gero inprobisatuz. "Ikusi nuenian" doinua ezagutzen ez dutela asumituko dugu, badaezpada, eta hargatik, Ikusi Nuenian letra banatu, eta bertan hutsune batzuk egonen dira, haiek bete beharko dituztenak. Silaba kopurua eta errima mota aintzat izan dezatela!</p> <p>b) Irakasleak banan bana galdetuko die, galde erantzunen dinamika uler dezaten.</p> <p>c) PASAHITZA JOLASA - MIGRAZIOARI LOTUTA. Irakasleak lau erronda ezberdin prestatuko ditu, eta beraz, 16 ikasle dira guztira honetan arituko direnak, 4ko txandetan. "Ikusi nuenian" doinu berdina erabiliko dugu, eta puntu bat baino ez dute sortu beharko, ahoz eta bat-batean, bikotearekin lehian. "Pasapalabra" telesail ospetsuaren dinamika berdinean jardungo garela azalduko diegu. Nik puntua eman, eta haiek, biko talde banatan, ahalik eta azkarren erantzuten saiatuko dira. Oina bera izan beharko da erantzuna, tokatzen den letraz hasten dena. Adibidez:<br/> <a href="https://bertsoikaskgela.eus/baliabideak/822/">(https://bertsoikaskgela.eus/baliabideak/822/)</a></p> <p>i) Gaia; lanbideak. Letra; i. Hau dugu etxeko lana/ bidaltzen zalea. Erantzuna; irakaslea</p> <p>ii) Ikasleek puntu osoa sortu beharra dute, esaterako: hau ongi dakit nor den/ da irakaslea</p> <p>d) Gainontzeko ikasleei, lau oin emango zaizkie. Binaka arbelera atera, eta txandaka, batek oin bat erabiliz, besteak beste batekin erantzun beharko dio, eta gero honek berdin, beste oin bat erabilita galdera bota.</p> <p>3) Iñaki, Zer urrun dagon kamerun abestia erakutsi.</p> |
|--|--|

|           |   |
|-----------|---|
| 3. Saioa  |   |
| 50 minutu | <p>1) OHAR GARRANTZITSUA. Ikaskide batek hitza duen bitartean irakasleak ikasleei mesedez eskatuko die hark dioena transkriba dezaten. Koadernoan kantuan ariko den ikaslearen izena idatzi eta ondoren kantatu ahala esanen lukeen ezer idatzi "diktaketa" balitz bezala. Era honetan, errespetua bermatzea bilatzen da, ikaskideari</p> |

entzun beharko baitiote, eta dioena idazteko kontzentratu. Gainera, bukaerako ebaluazioa egin eta ondorioak ateratzeko balioko digu honek.


2) PRAKTIKA:

- a) Ofizio sekretua. Lagun ikusezina balitz bezala, ikasle bakoitzari 1A edo 1B fitxa banatuko zaio (edo 2A eta 2B, 3A, 3B...), bertan, gai bat eta dagokien rola idatzita izango duenari. Zenbait oin ere proposatuko dizkiegu orri horretan bertan. Haien rola prestatzeko hainbat minutu emango dizkiegu, enpatiaz rol horretan koka daitezten. Gero, arbelean binaka koplak sortzen saiatuko dira: "ama begira zazu", "Elurra teilatuan", "Haurrak ikas zazue"...
  - b) Bertso zatikatua: GAI orokorra emango diegu, eta banan bana, puntu bana sortu beharko dute gaiari lotua. Laguntza gisa, lehenengo saioan eman genien errima multzoetako bat erabil dezaten utziko diegu, nahiz era errima aberatsa izan behar ez. Behin denek puntu bat proposaturik, ikaskideek idatzitakoan oinarrituz denon artean bertso bakarra osatuko dugu.
- 3) Denbora balego, ASMAKIZUNEN jolasa egingen genuke, hiruak, bik begiak itxi eta hirugarrenak eta klaseak asmatu beharreko hitza zein den jakingo lukete, adibidez: hegazkina. Ikasleek elkarri galde erantzunak eginez, begiak itxi dituzten biak hitza asmatzen saiatu beharko dira.



## ERANSKINAK II: Ikasleei banatu genizkien fitxak

### BERTSOBOT-A



*Bertsoak egiten dituen robota? Hala da, bai!*

*Nola funtzionatzen du? Guk NEURRIA agindu baino ez diogu egin behar! Zortziko txikia, zortziko handia, hamarreko txikia, kopla, habanera...*

**NEURRIAK** silaba kopurua eta oin kopurua zehazten ditu (**OIN:** errimatzen duen hitz, normalean lerro bikoitietan doana)

HITZ HAUEK GUZTIAK DABILTZA BERTSOBOT-AREN DISKO GOGORREAN DANTZAN:

ZUZENA HEMEN LABANA TRABA  
GU BEDERATZI KORAPILO BARRASKILO  
DRAMA ASTRAZENEKA AZALORE AMA  
BULTZA GAZTAINONDOA IRAGANA DA ETA  
MUNDUA ESKOLA ARROTZA GAITEZKE  
MUGA ZAMA HOR BA NARAMA  
ARDANDEGIA GOZOKI ARRANOPOLA UR  
NAIZ LURRIKARA GAI NIREGANA  
BELTZARANA MOTEL ISKANBILA SUGANDILA  
FESTA ERREPIDE AIZKORA AT IZANA  
SAGUZARRA BERRESKURAPEN  
POLITA LOREA PENA MUTIKO  
ERREGIN **JABE** SU DENBORA ZARATA  
NERABEZARO AZTERKETA URPEKOA

**1) SAILKATUKO DITUZU SILABA KOPURUAREN ARABERA?**

| silaba 1 | 2 silaba | 3 silaba | 4 silaba | 5 silaba |
|----------|----------|----------|----------|----------|
|          |          |          |          |          |

**2) GAINERA, HITZ HAUEN GUZTIEN ARTEAN BADAUDE \_\_\_\_ HITZ -ANA, ETA -AMA ERRIMATZEN DUTENAK. BOROBIL ZENITZAKE? (Gogoratu errimatzen duten hitzak, bertsoa osatzean, lerro bikoitien bukaeran joan behar dutela!)**

**3) BERTSOBOT-AK 8KO TXIKIA OSATU AHALKO DU? (Ekin batuketak egiteari!)**

- \_\_\_\_\_ (7 silaba)
- \_\_\_\_\_ (6 silaba)
- \_\_\_\_\_ (7 silaba)
- \_\_\_\_\_ (6 silaba)
- \_\_\_\_\_ (7 silaba)
- \_\_\_\_\_ (6 silaba)
- \_\_\_\_\_ (7 silaba)
- \_\_\_\_\_ (6 silaba)

**ERRIMA TALDEAK: Bilatuko ditugu errimatzen duten hitzak?**

|      |  |
|------|--|
| BGRD |  |
|------|--|

|     |  |
|-----|--|
| KPT |  |
|-----|--|

|    |  |
|----|--|
| MN |  |
|----|--|

|               |  |
|---------------|--|
| SXZ<br>TSTXTZ |  |
|---------------|--|

|   |  |
|---|--|
| L |  |
|---|--|

## POTOKUMEAK: Baietz bertso hauen oinak zuk asmatu!

2018ko ekainean honako gai hau jarri zioten Beñat Gaztelumendi bertsolari añorgarrari Leioan:

869. Zenbaki bat da. Datu bat. Kopuru bat. Izan zitekeen bart gauean, Leioan, juergan ligatu duen jende kopurua. Edo izan zitekeen bart juergan 200 eurotik gora gastatu duen jende kopurua. Edo Bulebarrean dagoen banderín kopurua. Baina ez. Datu hau da, azkeneko bi egunetan, Gibraltargo itsasartean erreskatatu dituzten pertsona kopurua.

DOINUA: *Gure Aurreko Guraso Zaharrak*. NEURRIA: Hamarreko Handia (10/8).

|                                 |                                |
|---------------------------------|--------------------------------|
| Ia-ia mila lagun joanak         | Beren herritan izango zuten    |
| itsasoaren PASEAN               | Ezin bizi eta gaitzik          |
| Beren gose ta beren beharrak    | Bestela inork ez du pasako     |
| nahi gisa ezin ase _____        | eta itsasoko _____             |
| Nahiz kopuruez mintzatzen garen | Beren herriak utziko ditu      |
| matematiken _____               | Hamaika jende _____            |
| Zer geratzen da kopuru horien   | Lehen bizi hamar eta gero ehun |
| Ondokoa _____                   | eta gero mila _____            |
| Bizi osoak dauzkagulako         | Galdera ez da nora doazen      |
| zenbaki horren _____            | Zergatik doazen _____          |

Libian zenbat jende den hila  
ahaztu zaigu JADA  
Aipa dezagun Etiopia,  
Algeria ta \_\_\_\_\_  
Itsasartean bueltaka dabil  
Halako jende \_\_\_\_\_  
Eta beraiek ailegatzea  
leku duin \_\_\_\_\_  
Matematika kontua baino  
eskubide kontua \_\_\_\_\_

## MIGRAZIOARI BURUZ KANTUAN

2009ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean, Amets Arzallus bertsolariari gai hau jarri zioten:

*“Goizero, autobusean hutsik geratzen den eserleku bakarra zure ondokoa izaten da.”*

|   |  |
|---|--|
| <p>Sortzean ginen bost anai<br/>inork ez zuen joan nahi<br/>neri esan zidaten ai<br/>"Hik balio dek hi joan hai!".<br/>Afrikan ezin genuen bizi<br/>eta Europa amesgai.<br/>Hara bi urte Euskal Herrian<br/>aukera hobe baten zai<br/>baina ez dakit zer den azala<br/>zer den begi zer den usai...<br/>Autobus hontan gogoratzen naiz<br/>pateran gentozen nornahi<br/>ai zeinen estu gentozen eta<br/>hemen tamalez zein lasai!</p> | <p>Ni Mohamed naiz izenez<br/>ta Iñaki ezizenez<br/>neure motxila gizenez<br/>disco saltzaile naizenez<br/>autobus hontan nator goizero<br/>neure gogo neure senez<br/>baten bat neure ondoan ea<br/>jartzen den itxaropenez<br/>baina hemengoak azalez eta<br/>hitzez zuriak direnez<br/>bi urteotan ez dator inor<br/>ta hemen nago neure penez:<br/>autobus baten barruan goaz<br/>baina bide berean ez</p> |
|---|--|

Ta bakardade sakona  
hik ez, ez nauk abandona  
Koranari jaramona  
ta irakurtzen dut Mahoma  
hark esaten dit "Segi aurrera  
hi baihaiz pertsona ona".  
Baina badoaz bi ejekutibo  
ta neskatxa baten gona  
zigarroa errez bizar ta guzti  
aurrera doa gizona  
baina hara hor zahar bat badator  
ta gerturatu da hona.  
Lehenengoa zu zera eta  
eskerrik asko amona!

DOINUA: Munduko Ilunabarra. NEURRIA: 9 puntukoa

**HARTU KOLORETAKO HARKATZ EDO BOLIGRAFOAK!  
Bertso hauen alde teknikoari erreparatuko diogu!**

## AHAPALDI HONI BURUZKO GALDERAK:

1) Noren paperean jarri da Amets?

---

2) Zer gertatzen ari zaio?

---

3) Nola sentiarazten dio egoerak? (2. bertsoan azaltzen du).

---

4) Lehenengo bertsoan, zergatik uste duzu diola “Europa amesgai” zutela?

---

5) Mesedez, azalduko duzu labur-labur hiru bertsoen bukaera bakoitzak zer esan nahi duen?

|   |  |
|---|--|
| ai zeinen estu gentozen eta hemen tamalez zein lasai! |  |
| autobus baten barruan goaz baina bide berean ez       |  |
| Lehenengoa zu zera eta eskerrik asko amona!           |  |

6) Gaia zuri jarri izan balizute (Ametssek egin zuen bertsoa ahaztu) zeri buruz kantatu izango zenuen?

---

7) “Ni Mohamed naiz izenez ta Iñaki ezizenez” esaldia ulertzeko, badago kanta ospetsu bat, agian ezagutuko duzuna “Iñaki, Ze Urrun Dagon Kamerun”.

## ERANSKINAK II: Errubrika

|  |            |
|--|------------|
| Ikaslearen izena:  |            |
| Data:  |            |
|  | 1etik 5era |
| AHOZKOAREN ULERMENA  |            |
| Ahozko jarraibideak jarraitzen ditu  |            |
| Ahozko jarraibideak interpretatzen ditu  |            |
| Ahozko jarraibideen hierarkia errespetatzen du   |            |
| Hizlariaren zenbait estrategia identifikatzen ditu                                       |            |
| Hizlariaren zenbait estrategia interpretatzen ditu                                       |            |
|  | /25        |
| EDUKIAREN GAINEKO GOGOETA  |            |
| Emandako informazioa bere aldez aurreko ezagutzekin eta esperientziekin erlazionatzen du |            |
| Egiazko eta alegiazko gertaeren artean bereizten du                                      |            |
| Informazio esanguratsua atxikitzen du eta informazio zehatzak erauzten ditu              |            |
|  | /15        |
| AHOZKO EKOIZPENA   |            |
| Bere ahozko ekoizpeneko akatsak eta inorenak atzematen ditu                              |            |
| Bere ahozko ekoizpeneko akatsak hobetzeko soluzioak proposatzen ditu                     |            |
| Planifikatu gabe hitza hartzen du ikasgela barruan                                       |            |
| Gaiari lotzen zaio   |            |
| Moderatzailearen jarraibideei kasu ematen die  |            |
| Bere eta inoren elkarrizketetako esku-hartzeak ebaluatzen ditu                           |            |
|  | /30        |

|  |     |
|--|-----|
| JARRERA  |     |
| Hitz egiteko txandara egokitzen da   |     |
| Gainerakoak aktiboki entzuten ditu   |     |
|  | /10 |
| AHOZKOTASUNA ETA BERTSOLARITZA   |     |
| Komunikazio egoera errealak eta alegiazkoak dramatizatzen eta inprobisatzen ditu |     |
|  | /5  |